# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Foru Aginduak*

### KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILA

**5813**

**Irailaren 1eko 347 FORU AGINDUA, Arabako Txirrindulari Federazioaren Estatutuak onartzen dituena.**

Euskadiko kirol federazioen gaineko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak dio, lehen xedapen iragankorrean, kirol federazioek egokitu egin behar dituztela euren estatutuak Dekretu horrek xedatutakora.

Dekretu horren 65.2 artikuluak dio Arabako kirol federazioen estatutuak Arabako Foru Aldundiko dagokion organoan aurkeztuko direla, onartzeko.

Arabako Foru Aldundian kirolaren arloa Euskara, Kultura eta Kirol Sailari dagokio.

2007ko abenduaren 10eko data duen 20.405 idazkian, Arabako Txirrindularitza Federazioak eskatu zuen 16/2006 Dekretura egokitu eta 2007ko azaroaren 21eko Aparteko Batzar Nagusian onartu dituen estatutu berriak onartzea.

Horren ondorioz, dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa. Arabako Txirrindularitza Federazioaren Estatutuak onartzea. Euskadiko kirol federazioen gaineko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretura egokituta eta Foru Agindu honi erantsita daude.

Bigarrena. Ebazpen hau eta bere Eranskina Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena. Arabako Txirrindularitza Federazioaren Estatutuak Foru Agindu honen bidez onartu izanaren kopia bidaltzea Eusko Jaurlaritzaren Kirol Entitateen Erregistrora.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 1.– Euskera, Kultura eta Kirol Salleko Diputatua, LORENA LÓPEZ DE LACALLE ARIZTI.

**Foru Aginduaren eranskina**

**ARABAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOAREN ESTATUTUAK**

**I. TITULUA**
**XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioa irabazteko xederik gabeko entitatea da. Nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena du, eta kirolariak, teknikariak, epaileak, kirol klubak eta elkarteak eta beste entitate batzuk biltzen ditu bere baitan, Arabako Lurralde Historikoan txirrindularitza modalitate desberdinak praktikatzeko, sustatzeko eta antolatzeko.

Arabako Txirrindularitza Federazioak ondorengo diziplina hauek hartuko ditu beregan:

a) Ziklo krosa
b) Trialsina
c) Mendiko bizikleta
d) Pista
e) Errepideko lasterketa
f) BMX
g) Gimnasioko txirrindularitza

2. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioak lege arau hauek ditu gidari: 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko kirolarena; 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretua, Euskadiko kirol federazioena; Legea garatzen duten gainerako xedapenak; estatutu hauek; berariaz prestatutako araudiak; eta bere organoek baliotasunez hartutako erabakiak.

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTES

**5813**

**ORDEN FORAL 347 de 1 de setiembre, que aprueba los Estatutos de la Federación Alavesa de Ciclismo.**

El Decreto 16/2006, de 31 de enero,de las Federaciones Deportivas del Pais Vasco señala, en su disposición transitoria primera, que las federaciones deportivas adaptarán sus actuales Estatutos a lo dispuesto en el citado Decreto.

El artículo 65.2 del citado Decreto señala que los Estatutos de las federaciones territoriales deportivas alavesas se presentaran para su aprobación en el órgano competente de la Diputación Foral de Álava.

Correspondiendo la materia de deportes de la Diputación Foral de Álava al Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

Con escrito número 20.405, de fecha 10 de diciembre de 2007, la Federación Alavesa de Ciclismo solicita la aprobacion de los nuevos Estatutos adaptados al Decreto 16/2006, aprobados por la Asamblea General Extraordinaria celebrada el 21 de noviembre de 2007.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen.

DISPONGO:

Primero. Aprobar los Estatutos de la Federación Alavesa de Ciclismo adaptados al Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco, que se incorporan como anexo a esta Orden Foral.

Segundo. Publicar la presente resolución y el anexo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Alava.

Tercero. Remitir copia de la aprobación de los Estatutos de la Federación Alavesa de Ciclismo aprobados por esta Orden Foral al Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 1 de setiembre de 2008.– Diputada de Euskera, Cultura y Deportes, LORENA LÓPEZ DE LACALLE ARIZTI.

**Anexo a la Orden Foral**

**ESTATUTOS DE LA FEDERACION ALAVESA DE CICLISMO**

**TÍTULO I**
**DISPOSICIONES GENERALES**

Artículo 1

La Federación Alavesa de Ciclismo es la entidad privada sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica y capacidad de obrar, que reúne a deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces, clubes, agrupaciones deportivas y otras entidades para la práctica, promoción y organización de la modalidad de ciclismo en el Territorio Histórico de Álava.

La Federación Alavesa de Ciclismo tendrá integradas las siguientes disciplinas:

a) Ciclo-cross
b) Trialsin
c) Montain bike
d) Pista
e) Ruta
f) BMX
g) Ciclismo gimnasio

Artículo 2

La Federación Alavesa de Ciclismo se rige por la Ley 14/1998 de 11 de junio, del Deporte del País Vasco; así como por el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de Federaciones Deportivas del País Vasco, y demás disposiciones de desarrollo de la Ley; por los presentes Estatutos y reglamentos específicos y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos propios.

3. artikulua
Helbide honetan du egoitza Arabako Txirrindularitza Federazioak: Zerkabarren, 5-behea (Kirol Etxea) 01001 Gasteiz (Araba).

4. artikulua
Arabako Txirrindularitza Federazioak Arabako Lurralde Historikoko txirrindularitzako kirol jarduera eta lehiaketa ofizialak eta, kasuan kasu, modalitate horretan antolatzen edo zehazten diren diziplinak sustatu, kalifikatu, baimendu, zuzendu eta antolatzen ditu, Euskadiko Txirrindularitza Federazioari dagozkion eskumenen nahiz Arabatik kanpo gauzatu ditzakeen jardueren kaltetan izan gabe.

5. artikulua
Arabako Txirrindularitza Federazioa Euskadiko Txirrindularitza Federazioko kide da.
Arabako Txirrindularitza Federazioak bere modalitateari dagokion Arabako kirol federatua ordezkatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan.

6. artikulua
Bere helburuak lortzeko, eginkizun hauek beteko ditu Federazioak:
a) Kirol jarduera federatua antolatzea Arabako lurralde eremuan.

b) Kirol modalitateko eta bertan txertatuta dauden diziplinetako lehiaketa ofizialak eta jarduerak antolatzea Araban.
c) Parte hartzeko eta lehiatzeko bere arauak ezartzea, nahiz eta, hala dagokionean, lurralde eremu zabalagoko federazioek emandako arauak ere aplikatuko diren.
d) Txirrindularitza modalitateko ordezkaria izatea Euskal Autonomia Erkidegoan, eta bere estamentu guztiek esparru horretako lehiaketa guztietan parte hartzeko bideak jartzea.
e) Bere modalitateko federazio lizentziak izapidetzea, gero Euskadiko Txirrindularitza Federazioak eman ditzan, azken honek ezarritako betebehar eta prozedurei jarraiki.
f) Bere jarduera aurrera eramaterakoan sortzen diren kirol gatazken berri jakitea eta haiek ebaztea, organo judizialen eta arbitralen eskumenaren kaltetan izan gabe.
g) Bere arauak betearaztea eta diziplinako ahalmena haien arabera erabiltzea.
h) Euskadiko Txirrindularitza Federazioarekin batera lan egitea debekatuta dauden botika gaiak eta multzoak eta kirolean arauz kanpokoak diren metodoak erabil ez daitezen aurre neurriak hartzen, erabilera horiek ikuskatzen eta zigortzen, horretarako xedatzen den araudiaren arabera.
i) Txirrindularitza kirol modalitateko teknikariak eta epaileak prestatzen laguntzea, horretarako xedatzen den araudiaren arabera.

j) Bere diru baliabideak zertarako erabili eta nola banatu erabakitzea; bere jarduera aurrera eramateko beste erakunde batzuek eskualdatzen dizkioten baliabideak kudeatzea, eta bere baliabide guztiak zuzen erabiltzen direla zaintzea.
k) Kide dituen kirol klub eta elkarteei eman diezaizkiekeen dirulaguntzak esleitzea eta kontrolatzea.

l) EAEko administrazioekin batera elkarlanean aritzea kirola bultzatzeko bere helburuak betetzerakoan, eta bereziki, 14/1998 Legeak federazioei zuzenean ematen dizkien lankidetza eta aholkularitza eginkizunetan.
m) Bere estatutuak eta araudiak prestatzea.
n) Dagokion lurralde eremuan eta bere kirol modalitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den neurrian, bermatzea.
ñ) Eta, oro har, bere kirol modalitatean aritzea bultzatzeko eta hobetzeko egokia den guztia xedatzea.
7. artikulua
Arabako Txirrindularitza Federazioak Euskadiko Txirrindularitza Federazioarekin eta, hala dagokionean, beste lurralde federazioekin koordinatuta beteko ditu bere eginkizunak.

Artículo 3
La Federación Alavesa de Ciclismo tiene su domicilio en la calle Cercas Bajas 5, bajo (Casa del Deporte) de Vitoria-Gasteiz, C.P. 01001 Alava.
Artículo 4
La Federación Alavesa de Ciclismo impulsa, califica, autoriza, ordena y organiza las actividades y competiciones oficiales deportivas de la modalidad deportiva de ciclismo y, en su caso, las disciplinas de dicha modalidad que se configuren o definan en el ámbito territorial de Álava, sin perjuicio de las competencias que son propias de la Federación Vasca de Ciclismo ni de las actividades que pueda realizar fuera de Álava.
Artículo 5
La Federación Alavesa de Ciclismo está integrada en la Federación Vasca de Ciclismo.
La Federación Alavesa de Ciclismo ostenta la representación del deporte federado alavés correspondiente a su modalidad en el ámbito autonómico.
Artículo 6
Para el cumplimiento de sus fines la Federación ejercerá las siguientes funciones:
a) Organizar la actividad deportiva federada en el ámbito territorial de Álava.
b) Organizar competiciones oficiales y actividades de la modalidad deportiva y disciplinas integradas, en el ámbito de Alava.
c) Establecer sus propias normas de participación y competición, sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de las normas dictadas por federaciones de ámbito territorial superior.
d) Ostentar la representación de la modalidad deportiva de ciclismo en el ámbito autonómico e instrumentar la participación de todos sus estamentos en competiciones de dicho ámbito.
e) Tramitar las licencias federativas de su modalidad, para su expedición por la Federación Vasca de Ciclismo conforme a los requisitos y procedimientos establecidos por ésta.
f) Conocer y resolver los conflictos deportivos que se originen en el desarrollo de su actividad, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales y arbitrales.
g) Velar por el cumplimiento de sus normas reglamentarias y ejercer la potestad disciplinaria con arreglo a las mismas.
h) Colaborar con la Federación Vasca de Ciclismo en la prevención, control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a la normativa que al efecto se determine.

i) Colaborar en la formación de las y los técnicos y jueces de la modalidad deportiva del ciclismo conforme a la normativa que al efecto se determine.
j) Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que les transfieran otras entidades para el desarrollo de su actividad, y controlar la correcta aplicación de todos sus recursos.
k) Asignar y controlar la aplicación de las subvenciones que pudiera conceder a los clubes y agrupaciones deportivas adscritos a ella.
l) Colaborar con las administraciones del País Vasco en el cumplimiento de sus fines de promoción deportiva y, en particular, en aquellas funciones de cooperación y asesoramiento que la Ley 14/1998 atribuye directamente a las federaciones.
m) Elaborar sus estatutos y reglamentos.
n) Promover y, en la medida de lo posible, garantizar la igualdad de mujeres y hombres en la práctica de su modalidad deportiva en su ámbito territorial.
ñ) Y, en general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora de la práctica de su modalidad deportiva.
Artículo 7
La Federación Alavesa de Ciclismo desarrollará sus funciones en coordinación con la Federación Vasca de Ciclismo y, en su caso, con las otras Federaciones territoriales integradas en la vasca.

Arabako Txirrindularitza Federazioak Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan beteko ditu bere eginkizunak eta lankidetza hitzarmenak sinatu ahal izango dira bien artean, helburuak, kirol programak, aurrekontuak eta eskuordetutako funtzio publikoekin zerikusi zuzena duten gainerako alderdiak zehazteko xedez. Hitzarmen horien izaera juridiko-administratiboa izango da. Era berean, Arabako Txirrindularitza Federazioak kontratu programak sinatu ahal izango ditu Arabako Foru Aldundiarekin; horietan, gutxienez, programak finantzatzeko aurreikuspenak, lortu beharreko helburu zehatzak edo kuantifikagarriak eta helburu horiek ebaluatzeko eta auditatzeko mekanismoak adierazi beharko dira.

8. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren barruan ez da utziko inori bereizkeriarik egiten arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritzi eta sinesmenengatik, edota beste edozein egoera pertsonal nahiz sozialengatik.

## II. TITULUA
## FEDERAZIOKO KIDE EGITEA. LIZENTZIAK

9. artikulua

1.- Federazio lizentzia agiri pertsonala eta besterenezina da; bere titularrari, pertsona fisikoa edo juridikoa izan, Arabako Txirrindularitza Federazioko kide izaera ematen dio, eta bere lehiaketa ofizialetan eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioarenetan parte hartzeko gaitzen du, betiere lehiaketa bakoitzean diren arauei jarraituz.

2.- Federazio lizentzia bakarra izango da EAE osoan, eta, horren bidez, titularra bai Arabako Txirrindularitza Federazioari bai Euskadiko Federazioari atxikita egongo da.

3.- Aldi berean bi federazioetako kide egiten da bat dagokion lizentzia eskuratzean.

4.- Arabako Txirrindularitza Federazioak, Euskadiko Federazioarekin ados jarrita, aisialdiko edo zerbitzuetako txartel bat sortu ahal izango du, ofiziala izango ez dena eta borondatezko harpidetza izango duena. Txartel horrek ez du titularra dagokion federazioko kide egingo, eta ofizialak ez diren kirol jarduera batzuetan parte hartzea edo zerbitzu jakin batzuk jasotzea baino ez du ahalbidetuko.

5.- Federazioaren lizentziak titularra lurralde eremu zabalagoko lehiaketa ofizialetan parte harzteko gaituko du, indarrean dagoen araudiak ezarritako kasu eta baldintzetan.

10. artikulua

1.- Arabako Txirrindularitza Federazioa da bere kirol modalitateko federazio lizentziak izapidetzeko eskumena duen erakunde bakarra. Euskadiko Txirrindularitza Federazioak igorriko ditu lizentziak.

2.- Arabako Txirrindularitza Federazioak borondatezko kuota gehigarria jaso ahal izango du federatuengandik, federazioaren zerbitzu eta jarduera jakin batzuk finantzatzeko.

3.- Euskadiko Txirrindularitza Federazioak honakoak arautuko ditu: lizentzien dokumentu, kirol eta ekonomia arautegia, horien eskubide eta betebeharrak, iraupena, indarraldiaren hasiera, mailak, kuotak, prozedura, formatua eta antzeko gaiak. Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren eginkizuna izango da nahitaezko arrisku estaldura bermatuko duten aseguru kolektiboak kontratatzea. Hala ere, bi federazioek euren eskumenak gauzatuko dituzte araudiei jarraituz eta hitzartutako koordinazio erabaki edo hitzarmenei jarraituz.

4.- Arabako Txirrindularitza Federazioak lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia Euskadiko Federazioari emango dio, eta likidazio hori Euskadiko Federazioaren Batzar Orokorrak onesten dituen terminoetan, eta urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 24.5 artikuluan xedatutakoaren arabera egingo du.

Zenbateko garbi hori lortzeko zenbateko osoari lurralde eremu zabalagoko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko aseguru eta kuoten zenbatekoak kenduko zaizkio.

11. artikulua

1.- Lizentziek Euskadiko Federazioaren Batzar Nagusiak onartutako formatua eta edukia izango dituzte, eta lizentziotan, halabeharrez, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

La Federación Alavesa de Ciclismo desarrollará sus funciones en colaboración con la Diputación Foral de Alava y podrá suscribir con la misma convenios de colaboración al objeto de determinar los objetivos, programas deportivos, presupuestos y demás aspectos directamente relacionados con las funciones públicas delegadas. Tales convenios tendrán naturaleza jurídico-administrativa. Igualmente la Federación Alavesa de Ciclismo podrá suscribir con la Diputación Foral de Alava contratos-programa en los que se incluirán, como mínimo, las previsiones de financiación de aquellas, los objetivos concretos o cuantificables a alcanzar así como los mecanismos para evaluación y auditoria de dichos objetivos.

Artículo 8

En el seno de la Federación Alavesa de Ciclismo no se permitirá discriminación alguna por razón de raza, sexo, religión, opiniones y creencias, o cualquier otra circunstancia personal o social.

## TÍTULO II
## INTEGRACIÓN FEDERATIVA. LICENCIAS

Artículo 9

1.- La licencia federativa es el documento de carácter personal e intransferible que otorga a su titular, persona física o jurídica, la condición de miembro de la Federación Alavesa de Ciclismo y le habilita para participar en sus competiciones oficiales y en las de la Federación Vasca de Ciclismo, siempre con arreglo a las reglas que en cada caso rijan las mismas.

2. - La licencia federativa será única en el País Vasco y supondrá la doble adscripción de su titular a la Federación Alavesa de Ciclismo y a la Federación Vasca.

3. - La integración simultánea en ambas federaciones se produce mediante la obtención de la correspondiente licencia.

4. - La Federación Alavesa de Ciclismo podrá crear, de común acuerdo con la Federación Vasca, una tarjeta recreativa o de servicios, de carácter no oficial y de suscripción voluntaria, que no conllevará el derecho a participar en competición oficial alguna y que no supondrá la integración en esta Federación. Tal tarjeta sólo dará lugar a la participación en determinadas actividades deportivas no oficiales o a la obtención de determinados servicios.

5.- La licencia de la Federación habilitará a su titular para participar en competiciones oficiales de ámbito territorial superior en los casos y condiciones que establezca la normativa vigente.

Artículo 10

1.- La Federación Alavesa de Ciclismo es la única entidad competente para tramitar las licencias federativas de su modalidad deportiva, licencias que serán emitidas por la Federación Vasca de Ciclismo.

2.- La Federación Alavesa de Ciclismo podrá percibir de sus federados y federadas una cuota adicional de carácter voluntario para la financiación de determinados servicios y actividades.

3.- La Federación Vasca de Ciclismo, establecerá reglamentariamente el régimen documental, deportivo y económico de las licencias, sus derechos y obligaciones, duración, comienzo de vigencia, categorías, cuotas, procedimiento, formato y demás cuestiones análogas. Tal función comprenderá también la contratación de los seguros colectivos que garanticen las coberturas obligatorias de riesgos. Sin perjuicio de ello, ambas Federaciones desarrollarán sus competencias a través de los Reglamentos correspondientes y, en su caso, acuerdos o convenios de coordinación.

4.- La Federación Alavesa de Ciclismo liquidará, entregando a la Federación Vasca, el importe neto de cada licencia en los términos que apruebe la Asamblea General de la Federación Vasca y de acuerdo con lo establecido en el artículo 24.5 del Decreto 16/2006, de 31 de enero.

Dicho importe neto será el resultante de minorar al importe bruto los importes correspondientes a seguros y a las cuotas para participar, en su caso, en competiciones oficiales de ámbito territorial superior.

Artículo 11

1.- El formato y contenido de las licencias serán los aprobados por la Asamblea General de la Federación Vasca y en dichas licencias deberán emplearse necesariamente las dos lenguas oficiales de la

Arabako Txirrindularitza Federazioak federazio lizentzien eskakizunen eta ondorioen berri emango die federatu nahi dutenei, eta federazioko kide egiteko beharrezkoak diren agiriak eta datuak jasoko ditu.

2.- Lizentziak komunikazioaren teknologiak era egokian aprobetxatzeko moduko baldintza teknikoak dituen euskarri batean, eta Eusko Jaurlaritzak euskarri horiei dagokionean onartutako ezaugarri teknikoekin bat etorriaz, igorriko dira.

3.- Lizentziaren agirian ondorengo kontzeptuak jasoko dira:

a) Nahitaezko aseguruen kuota.
b) Euskadiko Federazioarentzako kuota.
c) Arabako Federazioarentzako kuota.
d) Lurralde eremu zabalagoko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuota, hala dagokionean.

4.- Lizentziaren agirian, halaber urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 25.4 artikuluan ezarritako edukiak jasoko dira.

12. artikulua

Federazio lizentziek urtebeteko iraupena izango dute, urte naturalarekin bat etorriz, Euskadiko Txirrindularitza Federazioak bestela xedatzen duenean salbu.

**III. TITULUA**
**GOBERNU, ADMINISTRAZIO ETA ORDEZKARITZAKO ORGANOAK**

13. artikulua.

Arabako Txirrindularitza Federazioan gobernu, administrazio eta ordezkaritzako organo hauek egongo dira:

a) Gobernu organo bat, Batzar Nagusia izenekoa.
b) Administrazio organo kolegiatu bat, Zuzendaritza Batzordea izenekoa.
c) Ordezkaritza organo bat, zeinaren titularra Federazioko lehendakaria izango baita.

I. KAPITULUA
BATZAR NAGUSIA

14. artikulua

Batzar Nagusia Federazioaren gobernu organo gorena da, eta bere gain izango ditu eginkizun hauek, gutxienez:

a) Lehendakaria aukeratzea.
b) Federazioaren kontuak eta aurrekontuak onartzea.
c) Estatutuak eta estatutuen aldaketak onestea.
d) Zentsura mozioa onestea.
e) Lehiaketa egutegi ofiziala onartzea.
f) Federazioaren jardun plana onartzea.
g) Federazioaren araudiak eta horien aldaketak onartzea.
h) Ondasun higiezinak erabiltzea, besterentzea eta zergapetzea, maileguak hitzartzea eta zorraren edo ondarearen zati alikuotaren tituluak jaulkitzea, estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.
i) Federazioa desegitea erabakitzea.
j) Duten garrantzia dela-eta Batzar Nagusiaren onespena behar duten beste erabaki guztiak hartzea.
k) Diziplina epailea kargugabetzea.

15. artikulua

1.- Arabako Txirrindularitza Federazioaren Batzar Nagusia lau urtez behin hautatuko da bozketa libre, zuzeneko, berdin eta isilpekoaren bidez.

2.- Hauteskundeak, betiere, 16/2006 Dekretuaren 75. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo dira.

3.- Salbuespenez, eta Arabako Foru Aldundiaren berariazko administrazio baimena eskuratu ondoren, hauteskunde prozesua atzeratu edo aurreratu egin ahal izango da, hasteko aurreikusitako datetan egitea ezinezkoa gertatzen denean.

16. artikulua

1.- Batzar Nagusia osatuko dute kirol klub eta elkarteetako estamentuen ordezkariek, kirolariek, teknikariek eta epaileek, proportzio hauetan:

Comunidad Autónoma del País Vasco. La Federación Alavesa de Ciclismo informará a quienes deseen federarse sobre los requisitos y efectos de las licencias federativas y recogerá los documentos y datos necesarios para la afiliación federativa.

2.- Las licencias se emitirán en un soporte que cuente con unas condiciones técnicas que permitan un adecuado aprovechamiento de las tecnologías de la comunicación y de acuerdo con las especificaciones técnicas de dichos soportes que apruebe el Gobierno Vasco.

3.- En el documento de la licencia se consignarán los siguientes conceptos:

a) Cuota de los seguros obligatorios.
b) Cuota destinada a la Federación Vasca.
c) Cuota destinada a la Federación Alavesa.
d) Cuota para participar, en su caso, en competiciones oficiales de ámbito territorial superior.

4.- En el documento de la licencia se consignarán también los contenidos establecidos en el artículo 25.4 del Decreto 16/2006, de 31 de enero.

Artículo 12

Las licencias serán de duración anual, coincidente con el año natural, salvo disposición distinta, efectuada por la Federación Vasca de Ciclismo.

**TÍTULO III**
**ÓRGANOS DE GOBIERNO, ADMINISTRACIÓN Y REPRESENTACIÓN**

Artículo 13

En la Federación Alavesa de Ciclismo existirán los siguientes órganos de gobierno, administración y representación:

a) Un órgano de gobierno denominado Asamblea General
b) Un órgano de administración colegiado denominado Junta Directiva.
c) Un órgano de representación cuyo titular será el Presidente o Presidenta de la Federación.

CAPÍTULO I
ASAMBLEA GENERAL

Artículo 14

La Asamblea General es el máximo órgano de gobierno de la Federación y tendrá encomendadas, como mínimo, las siguientes funciones:

a) Elegir Presidente o Presidenta.
b) Aprobar las cuentas y presupuestos de la Federación.
c) Aprobar los estatutos y sus modificaciones.
d) Aprobar la moción de censura.
e) Aprobar el calendario de competiciones oficiales.
f) Aprobar el plan de actuación de la Federación.
g) Aprobar los reglamentos federativos y sus modificaciones.
h) Disponer, enajenar y gravar bienes inmuebles, concertar préstamos y emitir títulos de deuda o de parte alícuota patrimonial, conforme a lo establecido en los presentes estatutos.
i) Acordar la disolución de la Federación.
j) Adoptar todas aquellas otras decisiones que, por su trascendencia, precisen la aprobación de la Asamblea General.
k) Cese del Juez de Disciplina.

Artículo 15

1.- La Asamblea General de la Federación Alavesa de Ciclismo será elegida cada cuatro años mediante sufragio libre, directo, igual y secreto.

2.- En todo caso, las elecciones se realizarán de acuerdo con lo señalado en el artículo 75 del Decreto 16/2006.

3.- Excepcionalmente, y previa autorización administrativa expresa de la Diputación Foral de Alava, el inicio del proceso electoral podrá retrasarse o adelantarse cuando en las fechas de inicio previstas no resulte posible.

Artículo 16

1.- La Asamblea General estará integrada por los representantes de los estamentos de clubes y agrupaciones deportivas, deportistas, técnicas y técnicos, y juezas y jueces en la siguiente proporción:

a) Atxikitako kirol klub eta elkarteetako estamentuen ordezkaritza: batzarkide guztien % 70.

b) Kirolarien ordezkaritza: batzarkide guztien % 15.

c) Teknikarien ordezkaritza: batzarkide guztien % 7.

d) Epaileen ordezkaritza: batzarkide guztien % 8.

2.- Batzar Nagusiko kideen kopuru zehatza hauteskunde ororen aurretik zehaztuko du Hauteskunde Batzordeak, hauteskundeetarako dagoen errolda kontuan hartuta eta, hala dagokionean, Hauteskunde Araudiak ezarritako irizpideen arabera.

3.- Batzar Nagusiko kideak gehienez ere 50 izango dira.

17. artikulua

1. Kirol klub eta elkarteen estamentuak Batzar Nagusian edukiko dituen ordezkariak klub eta elkarteen ordezkariek hautatuko dituzte beren kideen artetik, baina baldintza hauek beteta: batetik, EAEko Kirol Erakundeen Erroldan izen emanda egotea eta Arabako Txirrindularitza Federazioko kide izatea; bestetik, gutxienez bi lizentzia izatea izapidetuta, hauteskundeak egiten diren denboraldian aktiboan egon diren eta aurreko denboraldian lizentzia eduki duten kirolarienak eta, gainera, kirolari horiek hauteskundeak egiten diren denboraldian kirol jarduera nabarmena eduki dutenak eta aurreko denboraldian eduki dutenak izan behar dute. Kirol jarduera nabarmena zer den zehazteko irizpideak arauz ezarriko dira.

18. artikulua

1.- Kirolarien estamentuak Batzar Nagusian edukiko dituen ordezkariak hemezortzi urtetik gorako kirolarien artetik hautatuko dira, betiere hauteskundeak egiten diren urtean eta aurrekoan lizentzia indarrean izan dutenen artetik. Ordezkaritza hori hamasei urtetik gora izanik lehen aipatutako baldintzak betetzen dituzten kirolariek hautatuko dute.

2.- Teknikari eta epaileen estamentuek Batzar Nagusian edukiko dituzten ordezkariak hauteskundeak egiten diren urtean eta aurreko urtean lizentzia –lizentzia edozein mailatakoa izanik ere– indarrean izan dutenek hautatuko dituzte, beren artetik.

3.- Hautaturik dauden aldian Batzar Nagusiko kideen artean hutsuneren bat gertatuko balitz, Batzar Nagusiko azken hauteskundeetan estamentu bakoitzeko ordezkoen zerrendan lehena zegoen pertsonak edo erakundeak beteko luke hura, Hauteskunde Araudian helburu horrekin ezarriko den jardunbidearen arabera.

19. artikulua

1.- Batzar Nagusiak ohiko eta aparteko batzarraldiak egingo ditu.

2.- Urtean gutxienez ohiko batzarraldi bat egingo da, urteko lehenengo sei hilabeteen barruan, kontuen egoera eta aurrekontua onartzeko. Egutegi ofiziala denboraldia hasi aurretik onartu beharko da.

3.- Bere eskumenekoak diren gainerako gaiak ere ohiko batzarraldian jorratuko dira, hurrengo paragrafoan aurreikusitakoak izan ezik.

4.- Batzar Nagusia aparteko batzarraldian bilduko da ondorengo gai hauetarako:

a) Hauteskundeak egitea.

b) Zentsura mozioa.

c) Estatutuak onartzea edo aldatzea.

d) Federazioa desegitea.

e) Araudiak onartzea edo aldatzea.

20. artikulua

1.- Ohiko nahiz aparteko Batzar Nagusietarako deialdia egitea Federazioko lehendakariari dagokio ofizioz, Zuzendaritza Batzordeak edo gutxienez Batzar Nagusiko kideen % 5ak hala eskatuta. Hori egiterik ez balego, edota lehendakariak Batzarrerako deialdia egiteko betebeharra beteko ez balu, Zuzendaritza Batzordeak, gehiengo soilez hartutako erabakiaren bidez, edo Batzarreko kideen % 5eko ordezkaritza duen talde batek egin ahal izango luke deialdia.

a) Una representación para el estamento de clubes y agrupaciones deportivas del 70 % del total de miembros de la Asamblea.

b) Una representación para el estamento de deportistas del 15 % del total de miembros de la Asamblea.

c) Una representación para los estamentos de técnicos y técnicas del 7 % de los miembros de la Asamblea.

d) Una representación del estamento de jueces y juezas del 8 % del total de los miembros de la Asamblea.

2.- La cifra exacta de miembros de la Asamblea General se determinará, antes de cada elección, por la Junta Electoral, a la vista del censo electoral existente y de acuerdo con los criterios que, en su caso, establezca el Reglamento Electoral.

3.- El número máximo de miembros de la Asamblea será de 50.

Artículo 17

1.- Las y los representantes del estamento de clubes y agrupaciones deportivas se elegirán por y entre la representación de los clubes y agrupaciones que, figurando inscritas en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco y adscritas a la Federación Alavesa de Ciclismo, tengan al menos tramitadas dos licencias correspondientes a deportistas en activo durante la temporada de celebración de elecciones y que la hayan tenido en la temporada anterior, y además, hayan realizado actividad deportiva significativa durante la temporada de celebración de elecciones y que la hayan tenido en la temporada anterior. Reglamentariamente se establecerán los criterios para determinar qué se entiende por actividad deportiva significativa.

Artículo 18

1.- Las y los representantes del estamento de deportistas se elegirán entre deportistas mayores de dieciocho años que tengan licencia en vigor para la temporada de celebración de las elecciones y que la hayan tenido en vigor también la temporada inmediatamente anterior. Dicha representación será elegida por las y los deportistas mayores de dieciséis años que cumplan las condiciones antes señaladas.

2.- Las y los representantes del estamento de técnicos y técnicas y del estamento de jueces y juezas se elegirán por y entre quienes tengan licencia en vigor para la temporada de celebración de las elecciones y la hayan tenido también en la temporada inmediatamente anterior, cualquiera que sea la categoría de la licencia.

3.- Si durante el período para el que resultaron elegidos, se produjera alguna vacante entre los miembros de la Asamblea General, se cubrirán por la persona o entidad que encabece la lista de suplentes de cada estamento en las últimas elecciones a la Asamblea General, de acuerdo con el procedimiento que establezca al efecto el Reglamento Electoral.

Artículo 19

1.- La Asamblea General se reúne en sesiones ordinarias y extraordinarias.

2.- La Asamblea General se reunirá en sesión ordinaria al menos una vez al año, dentro del primer semestre del año para la aprobación del estado de cuentas y presupuesto. El calendario oficial deberá ser aprobado antes del inicio de la temporada.

3.- Los demás asuntos de su competencia, salvo los previstos en el párrafo siguiente, se tratarán también en Asamblea ordinaria.

4.- La Asamblea General se reunirá en sesión extraordinaria para tratar los siguientes asuntos:

a) Celebración de elecciones.

b) Moción de censura.

c) Aprobación o modificación de los Estatutos.

d) Disolución de la Federación.

e) Aprobación o modificación de los Reglamentos.

Artículo 20

1.- La convocatoria de las Asambleas generales ordinarias o extraordinarias corresponde al Presidente o Presidenta de la Federación de oficio, a petición de la Junta Directiva o al menos del 5% de los componentes de la Asamblea General. Si ello no fuera posible, o el Presidente o Presidenta no cumpliera con su obligación de convocar la Asamblea, la Junta Directiva, por acuerdo adoptado por mayoría simple, o un colectivo de miembros de la Asamblea que represente al 5% de sus componentes podrán exigir la convocatoria.

2.- Lehendakariak gehienez 15 egun naturaleko epean egin beharko du Batzarrerako deialdia, horretarako eskaera egiten denetik kontatzen hasita. Lehendakariak ezarritako epean deialdia egingo ez balu, bai Zuzendaritza Batzordeak bai eskaera egin duten batzarkideek deialdia egin ahal izango dute.

21. artikulua

Ohiko nahiz aparteko Batzar Nagusirako deialdiaren eta gai zerrendaren berri idatziz emango zaie Batzarreko kideei, 15 egun aurretik gutxienez. Idatzizko jakinarazpena baliozkoa izango da faxez, posta elektronikoz edo kasu orotan erregistratzea edo gordetzea ahalbidetzen duen antzeko beste bitarteko baten bidez egiten denean ere.

22. artikulua

1.- Batzarreko kideek ahalmena dute lehendakariari eskatzeko interesgarritzat jotzen dituzten gaiak gai zerrendan sar ditzan, baldintza hauek betez gero: eskaera Batzarreko kideen gutxienez % 5ek proposatuta egin beharko da, sartu beharreko gaia Federazioaren interes orokorrekoa baldin bada; edota estamentu bateko kideen % 5ek proposatuta, sartu beharreko gaiak lehentasunezko interesa baldin badu estamentu horrentzat. Nolanahi ere, eskaera Batzar eguna baino bost egun natural lehenago egin beharko da, gutxienez.

2.- Proposatutakoa gai zerrendan sartzeko eskaerari ezezkoa emanez gero, horren berri eman beharko zaio eskatzaileari, eta ezezkoa emateko arrazoiak azaldu beharko zaizkio.

23. artikulua

1.- Batzar Nagusiak baliozko eraketa izango du lehen deialdian, baldin eta kideen erdiak eta bat gehiago agertzen badira. Bigarren deialdian eraketa baliozkoa izango da, agertzen diren kideen kopuruari erreparatu gabe.

2.- Zuzendaritza Batzordeko kide izanik Batzar Nagusiko kide ez direnak Batzarrera agertu ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe. Kide horiek ez dira kontatuko quoruma zenbatzerakoan.

24. artikulua

Botoak eskuordetzerik ez da onartuko Batzar Nagusiaren barruan.

## II. KAPITULUA
## ZUZENDARITZA BATZORDEA

25. artikulua.

Zuzendaritza Batzordea Federazioaren administrazio organoa da eta Federazioaren gaien administrazio eta ekonomia kudeaketaren eginkizunak betetzen ditu. Batzar Nagusiak emandako jarraibideen arabera bete behar ditu eginkizun horiek.

26. artikulua

1.- Zuzendaritza Batzordea bakoitia izango den kide kopuruaz osatuko da, eta honela egongo da eratuta:

a) Lehendakari bat, aldi berean Federazioko lehendakari izango dena.

b) Lehendakariorde bat, lehendakariaren eginkizunak bereganatuko dituena hura aldi baterako kanpoan baldin bada, edota kargua uzten baldin badu.

c) Hamaika batzarkide, gehienez.

Zuzendaritza Batzordeak, gainera, diruzain bat eta Federazioaren idazkariaren laguntza izango du. Biek hitza izango dute, baina botorik ez.

2.- Zuzendaritza Batzordeko kargu guztiak ohorezkoak dira, idazkariarena eta diruzainarena salbu, horiek ordaina jaso dezakete-eta, Batzar Nagusiak onartzen duen moduan eta kontuan hartuta 16/2006 Dekretuaren 114. eta 115. artikuluek diotena.

27. artikulua

1.- Zuzendaritza Batzordeko kideak lehendakariak hautatuko ditu, kargua hartu eta hurrengo hogeita hamar eguneko epearen barruan.

2.- Zuzendaritza Batzordeko kideek 16/2006 Dekretuan jasotako baldintzak bete beharko dituzte, eta bereziki 108. artikuluak dioena.

2.- El Presidente o Presidenta deberá proceder a la convocatoria a la Asamblea en el plazo máximo de 15 días naturales a partir del día que se formule la correspondiente petición. Si el Presidente o Presidenta no procediere a la convocatoria en el plazo antes indicado, tanto la Junta Directiva como, en su caso, los asambleístas peticionarios podrán proceder a su convocatoria.

Artículo 21

La convocatoria de la Asamblea General, tanto ordinaria como extraordinaria, junto con el orden del día, será comunicada a los miembros de la Asamblea, por escrito, con una antelación mínima de 15 días. La comunicación escrita será válida cuando se efectúe por fax, correo electrónico u otro medio análogo que permita, en todo caso, poder registrarse o guardarse.

Artículo 22

1.- Los miembros de la Asamblea podrán solicitar del Presidente o Presidenta la inclusión en el orden del día de aquellos asuntos que consideren de interés, siempre que la solicitud se haga a propuesta, como mínimo, de un 5% de los miembros de la Asamblea, si el punto a incluir es de interés general de la Federación; o de un 5% de los miembros de uno de los estamentos, si el punto a incluir es de preferente interés para el estamento de que se trate. En todo caso la petición deberá formularse con una antelación de al menos cinco días naturales anteriores a la fecha de celebración de la Asamblea.

2.- La denegación de la inclusión del punto propuesto en el orden del día deberá comunicarse al peticionario alegando las razones que hayan motivado la denegación.

Artículo 23

1.- La Asamblea General quedará válidamente constituida en primera convocatoria cuando concurra la mitad más uno de sus miembros. En segunda convocatoria bastará con la concurrencia de cualquier número de asistentes.

2.- Todos los miembros de la Junta Directiva que no lo sean de la Asamblea General podrán asistir a ésta con voz pero sin voto. Su asistencia no podrá ser computada a efectos de quórum.

Artículo 24

No se admitirá la delegación de voto en el seno de la Asamblea General.

## CAPÍTULO II
## JUNTA DIRECTIVA

Artículo 25

La Junta Directiva es el órgano de administración de la Federación y ejerce las funciones de gestión administrativa y económica de los asuntos federativos que deberá desarrollar confirme a las directrices de la Asamblea General.

Artículo 26

1.- La Junta Directiva, que contará con un número impar de miembros, estará compuesta por:

a) Un Presidente o Presidenta, que lo será asimismo de la Federación.

b) Un Vicepresidente o Vicepresidenta, que asumirá las funciones del Presidente o Presidenta en caso de ausencia temporal o cese de éste.

c) Un máximo de once vocales.

La Junta Directiva contará además con un Tesorero y estará asistida por el Secretario de la federación, ambos con voz pero sin voto.

2.- Todos los cargos de la Junta Directiva son honoríficos, excepto el del Secretario y el del Tesorero que podrán ser retribuidos en los términos que apruebe la Asamblea General y teniendo en cuenta lo señalado en los artículos 114 y 115 del Decreto 16/2006.

Artículo 27

1.- Los miembros de la Junta Directiva serán elegidos por el Presidente o Presidenta dentro de los treinta días siguientes a haber accedido éste o ésta al cargo.

2.- Los miembros de la Junta Directiva deberán cumplir los requisitos señalados en el Decreto 16/2006 y especialmente en su artículo 108.

28. artikulua

1.- Zuzendaritza Batzordearen bileretarako deialdiak egitea Federazioko lehendakariaren gain dago edo, hori falta denean, lehendakariordearen gain, edo bestela, kideen % 25aren gain.

2.- Deialdiari jorratu beharreko gaien zerrenda eta horien gaineko agiriak erantsiko zaizkio.

3.- Bileraren berri idatziz emango zaie batzordekideei, bi egun lehenago gutxienez, non eta ez dagoen behar bezala arrazoitutako presa larria.

4.- Edozein modutan, deirik egiten ez bada ere, bileraren eraketa baliozkoa dela ulertuko da, baldin eta kide guztiak agertzen badira eta denek aho batez hala erabakitzen badute.

5.- Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek berariaz hala onesten dutenean, Batzordea baliotasunez deitu eta egin dela ulertuko da, bere erabakiak posta elektronikoa, faxa edo Batzordeko kideen adierazpenak nahiz horien botoak jasotzea ahalbidetzen duen beste edozein bitarteko tekniko erabiliz hartzen badira. Kasu horretan, aktarekin batera esku hartzeen eta botoen agiriak gorde beharko dira.

29. artikulua

1.- Zuzendaritza Batzordea baliotasunez eratuko da lehen deialdian kideen erdiak eta bat gehiago agertzen badira, eta bigarren deialdian gutxienez kideen %25 agertzen badira, betiere Federazioko lehendakaria edo lehendakariordea bertan dela. Deialdia Batzordeko kideen % 25ek eskatuta egin denean, bileraren eraketa baliozkoa izango da kideen erdia eta bat gehiago agertzen badira.

2.- Federazioko lehendakaria, edo hura ez badago, lehendakariordea, izango da Zuzendaritza Batzordearen buru, eta berak zuzendu eta koordinatuko du Batzordearen jarduna.

30. artikulua

1.- Zuzendaritza Batzordeak bere agintaldia utziko du arrazoi hauetakoren bat baldin badago:

a) Lehendakariaren aurkako zentsura mozioa onestea.

b) Administratiboki edo judizialki aitortutako gaitasungabetzea.

c) Lehendakariak dimititzea.

d) Kideen erdiak baino gehiagok dimititzea edo haien heriotza, Lehendakariak jarri ez baditu dimititu duten edo hil diren kideen ordezkoak.

2.- Zuzendaritza Batzordeko kideek ondorengo arrazoi hauetakoren batengatik utziko dute kargua:

a) Dimititzea.

b) Heriotza.

c) Lehendakariak kargua uztea.

d) Judizialki aitortutako gaitasungabetzea.

e) Batzordearen hiru bilera edo gehiagotara, jarraian edo tartekatuta, ez agertzea, kirol denboraldi berean, arrazoitutako kausa larririk gabe.

f) Lehendakariak kargua utzaraztea.

3.- Lehendakariak, Zuzendaritza Batzordeko kide batek edo gehiagok kargua utziko balute, hil egingo balira edo gaitasungabetuko balira, beste pertsona batzuk izendatu ahal izango ditu hutsik geratu diren karguak betetzeko.

31. artikulua

Federazioaren idazkariak bere gain edukiko ditu, gutxienez, eginkizun hauek:

a) Batzar Nagusiaren eta Federazioaren Zuzendaritza Batzordearen bileren aktak egitea.

b) Federazioaren liburuez eta gainerako agiriez arduratzea, kontabilitatekoez izan ezik.

c) Liburu horien edukiari buruz eman beharreko ziurtagiri guztiak ematea.

32. artikulua

Federazioaren diruzainak bere gain edukiko ditu, gutxienez, eginkizun hauek:

Artículo 28

1.- Corresponderá al Presidente o Presidenta de la Federación o, en su defecto, al Vicepresidente o Vicepresidenta o al 25% de los miembros de la Junta Directiva, la convocatoria de las sesiones de la misma.

2.- La convocatoria se acompañará del orden del día donde figuren los asuntos a tratar, y de la documentación relativa a los mismos.

3.- Será notificada por escrito a los miembros de la Junta con al menos dos días de antelación, salvo supuestos de urgencia debidamente justificados.

4.- No obstante, aunque no haya convocatoria, se entenderá válidamente constituida si concurren todos sus miembros y así lo acuerdan por unanimidad.

5.- Siempre que así lo acepten expresamente todos sus miembros la Junta Directiva se entenderá válidamente convocada y celebrada si adopta sus acuerdos a través de correo electrónico, fax o cualquier otro medio técnico que permita recoger las manifestaciones de los miembros de la Junta, así como su voto para la adopción de los correspondientes acuerdos. En este caso, junto con el acta, deberán conservarse los justificantes de las intervenciones y votos.

Artículo 29

1.- La Junta Directiva quedará válidamente constituida cuando concurran en primera convocatoria la mitad más uno de sus miembros, y en segunda convocatoria cuando concurran al menos un 25% de sus miembros, y, en todo caso, el Presidente o Presidenta de la Federación o el Vicepresidente o Vicepresidenta. Cuando la convocatoria haya sido instada por el 25% de los miembros de la Junta quedará válidamente constituida si concurren a la misma la mitad más uno de sus miembros.

2.- El Presidente o Presidenta de la Federación o, en su ausencia, el Vicepresidente o Vicepresidenta, presidirá las sesiones de la Junta Directiva y dirigirá y coordinará su actuación.

Artículo 30

1.- La Junta Directiva cesará por alguna de las siguientes causas:

a) Por aprobación de moción de censura formulada al Presidente o Presidenta.

b) Por inhabilitación declarada administrativa o judicialmente.

c) Por dimisión del Presidente o Presidenta.

d) Por dimisión o fallecimiento de más de la mitad de sus miembros, en caso de que el Presidente o la Presidenta no haya procedido a la sustitución de los dimitidos o fallecidos.

2.- Los miembros de la Junta Directiva cesarán por alguna de las siguientes causas:

a) Por dimisión.

b) Por fallecimiento.

c) Por cese del Presidente o Presidenta.

d) Por incapacitación declarada judicialmente.

e) Por inasistencia a tres o más sesiones de la Junta consecutivas o alternas durante una temporada deportiva, salvo causa mayor justificada.

f) Por ser cesados/as por el Presidente o Presidenta.

3.- El Presidente o Presidenta podrá, en los supuestos contemplados en el artículo 30, punto 2, de estos estatutos nombrar a otras personas para ocupar las vacantes.

Artículo 31

El Secretario o Secretaria de la federación tendrá encomendadas, como mínimo, las siguientes funciones:

a) Levantar acta de las reuniones de la Asamblea General y de la Junta Directiva.

b) Cuidar de los libros y demás documentos de la Federación, salvo los de contabilidad.

c) Expedir los certificados que procedan sobre el contenido de los citados libros.

Artículo 32

El Tesorero o Tesorera de la federación tendrá encomendadas, como mínimo, las siguientes funciones:

a) Federazioaren kontuak eramatea eta ekonomia eragiketak egitea.

b) Federazioaren kontabilitate liburuak zaintzea eta eramatea.

c) Prestatu beharreko kontabilitate agiri guztiak prestatzea, bereziki urteko aurrekontuaren zirriborroa eta ekitaldi bakoitzeko kontuak, gero Batzar Nagusiak aztertu eta onar ditzan.

III. KAPITULUA
LEHENDAKARIA

33. artikulua

Federazioko lehendakariak beregan dauka Federazioaren legezko ordezkaritza. Berak gauzatzen ditu Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak; eta buru eta zuzendari da bi organo horien bileretan.

34. artikulua

1. Federazioko lehendakaria Batzar Nagusiak hautatuko du, lau urtez behin, bere kideen artetik, bozketa libre, zuzeneko, berdin eta isilpekoaren bidez, hartarako deitutako batzarraldian. Ez da botoetara joko hautagai bakarra dagoenean.

2. Lehendakariak ondorengo arrazoi hauetakoren batengatik utziko du bere kargua:

a) Dimisioa.

b) Zentsura mozioa onestea, hain zuzen ere 16/2006 Dekretuaren 104. artikuluan eta estatutu hauen 35.enean aurreikusitakoa.

c) Administratiboki edo judizialki aitortutako gaitasungabetzea edo ezintasuna.

d) Heriotza.

3. Lehendakariak bere kargua uzten badu, beste bat hautatu beharko da. Horrelakoetan, Zuzendaritza Batzordeak jardunean jarraituko du, eta Hauteskunde Batzordea deituko du gehienez ere hilabeteko epean. Epe hori iragan eta deialdirik egiten ez bada, gutxienez Batzar Nagusiko kideen %5en ordezkaritza duen edozein taldek deitu ahal izango du Hauteskunde Batzordea.

4.- Lehendakariak 16/2006 Dekretuan jasotako baldintzak bete beharko ditu, eta bereziki 108. artikuluak dioena.

35. artikulua

1.- Batzar Nagusiak lehendakariaren erantzukizuna eska dezake, haren aurkako zentsura mozioa onetsiz. Horretarako, Batzar Nagusiko kideen gehiengo soilak egin beharko du mozioaren alde, horretarako deitutako batzarraldian eta betiere batzarkideen erdia gehi bat gutxienez bertan dela.

2.- Zentsura mozioa onesten bada, lehendakariak eta Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek karguak utzi beharko dituzte.

36. artikulua

Lehendakaria berrautatua izan daiteke, baina agintaldien denboramuga jarraian bi agintaldikoa izango da. Jarraian izandako bi agintaldiak agortu ondoren ezingo da berriro lehendakari hautatu, gutxienez lau urte igaro arte.

IV. KAPITULUA
ORGANO GUZTIEI BURUZKO XEDAPENAK

37. artikulua

Estatutu hauetako 13. artikuluan ikusitako organoetako kide guztiek jardunean jarraituko dute beren ondorengoak karguez jabetu arte.

38. artikulua

1.- Arabako Txirrindularitza Federazioaren organo kolegiatuen erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilaz hartuko dira, lege edo estatutuetako xedapenek gehiengo kualifikatuak aurreikusten dituztenetan izan ezik.

2.- Kide guztiek berariaz onesten dutenean, Arabako Txirrindularitza Federazioaren organo kolegiatuek posta elektroniko, fax, bideokonferentzia edo antzeko bitartekoen bidez hartu ahal izango dituzten

a) Dirigir las cuentas y las operaciones de orden económico de la Federación.

b) Custodiar y llevar los libros de contabilidad de la Federación.

c) Preparar todos los documentos contables necesarios, en especial, el borrador del presupuesto anual y las cuentas de cada ejercicio, para su posterior examen y aprobación por la Asamblea General.

CAPÍTULO III
PRESIDENTE O PRESIDENTA

Artículo 33

El Presidente o Presidenta de la Federación asume la representación legal de la misma, ejecuta los acuerdos adoptados por la Asamblea General y por la Junta Directiva, preside y dirige las sesiones que celebra una y otra.

Artículo 34

1.- La Presidenta o Presidente de la Federación será elegida/o cada cuatro años por la Asamblea General de entre sus miembros mediante sufragio libre, directo, igual y secreto, en una sesión convocada al efecto. No procederá la votación en los supuestos de candidatura única.

2.- El Presidente o Presidenta cesará por alguna de las siguientes causas:

a) Por dimisión.

b) Por aprobación de moción de censura prevista en el artículo 104 del Decreto 16/2006 y en el artículo 35 de estos Estatutos.

c) Por inhabilitación o incapacitación declarada administrativa o judicialmente.

d) Por fallecimiento.

3.- En el supuesto de cese del Presidente o Presidenta deberá procederse a una nueva elección. En tal caso, seguirá en funciones y procederá a convocar a la Junta Electoral en el plazo máximo de un mes para que dé inicio al proceso electoral. Transcurrido dicho plazo sin tal convocatoria, cualquier colectivo de miembros de la Asamblea General que represente al menos un 5% del total de componentes de la misma, podrá convocar a la Junta Electoral.

4.- El Presidente o Presidenta deberá cumplir los requisitos señalados en el Decreto 16/2006 y especialmente lo señalado en su artículo 108.

Artículo 35

1.- La Asamblea General podrá exigir la responsabilidad del Presidente o Presidenta mediante la adopción de una moción de censura que deberá ser respaldada por la mayoría simple de los miembros de la Asamblea General, siempre que asistan la mitad más uno de las y los miembros que componen la misma, en una sesión convocada al efecto.

2.- La aprobación de la moción de censura causará el cese del Presidente o Presidenta de la Federación incluidos todos los miembros de la Junta Directiva.

Artículo 36

El Presidente o Presidenta podrá ser reelegido, pero el limite temporal de mandatos será de dos mandatos consecutivos. Agotados los dos mandatos consecutivos no podrá ser elegido para el cargo de Presidente o Presidenta hasta que haya transcurrido, al menos, un periodo de cuatro años.

CAPÍTULO IV
DISPOSICIONES COMUNES

Artículo 37

Las y los miembros de los órganos contemplados en el art. 13 de los presentes estatutos continuarán en el ejercicio de sus funciones hasta la toma de posesión de sus sucesores.

Artículo 38

1.- Los acuerdos de los órganos colegiados de la Federación Alavesa de Ciclismo se adoptarán por mayoría simple de miembros presentes, salvo en los supuestos en los que disposiciones legales o estatutarias prevean mayorías cualificadas.

2.- Siempre que lo acepten expresamente todos sus miembros, los órganos colegiados de la Federación Alavesa de Ciclismo podrán adoptar sus acuerdos mediante correo electrónico, fax, videoconfe-

erabakiak. Horrelakoetan, dagokion aktari faxen, posta elektronikoen eta dagozkien euskarrien agiriak erantsiko zaizkio.

39. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren Batzar Nagusiko kide, Zuzendaritza Batzordeko kide edo lehendakari izateko betebeharrak honako hauek dira:

a) Adin nagusikoa izatea.

b) Auzotartasun administratiboa Federazioaren jardun eremuaren barruan izatea. Salbuespenezko egoeretan Batzar Nagusiak onar dezake baldintza hori bete beharrik ez izatea.

c) Karguak edo funtzioak betetzeko gaitasungabetzea dakarren diziplina zehapen irmorik ez izatea.

d) Epailearen epai irmoaren bidez kargu publikoan aritzeko gaitasungabetze zigorrik ez izatea.

e) Epailearen erabaki irmoaren bidez ezgaitzat jota ez egotea.

40. artikulua

1.- Federazioaren organoek hartutako erabaki guztiak aktan idatziko ditu Federazioaren idazkariak, eta hor datu hauek ipini beharko ditu gutxienez: parte hartu dutenen izen-abizenak, bilera non eta noiz egin den, jorratu diren gai nagusiak, botazioaren modu-emaitzak eta erabakien edukia.

2.- Hartutako erabakiaren aurkako botoa eman dutenak, betiere horretarako arrazoia azalduta, salbuetsita egongo dira organo kolegiatuek hartutako erabakien ondorioz etor litekeen erantzukizunetik.

41. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak egoki irizten dituen adina batzorde eta antzeko organo sortu ahal izango ditu; bai Federazioaren kirol jarduerako arlo jakin bat garatzeko eta bai Federazioaren kolektibo edo estamentuen funtzionamendurako.

42. artikulua

1.- Arabako Txirrindularitza Federazioak dopajearen aurka aplikatzeko araudiak ezartzen dituen organoak izan beharko ditu.

2.- Arabako Txirrindularitza Federazioak batzorde tekniko bat izango du Federazioaren kirol zuzendaritza eta zuzendaritza teknikoa bere gain hartuko dituena.

43. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren zuzendaritzako kideek ondorengo eskubide hauek izango dituzte:

a) Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak federazioetako zuzendaritze-tako kideei ematen dieten etengabeko prestakuntza jasotzea, bai eta euren funtzioak behar bezala betetzeko doako aholkularitza teknikoa ere.

b) Euren funtzioak gauzatzeak eragiten dizkieten gastuen diru ordainak jasotzea, Federazioak aurretik zehazturiko mugen barruan.

c) Federazioaren bitartez, borondatezko jardueratik ondoriozta daitezkeen istripu arriskuetarako eta erantzukizun zibilerako asegurua izatea.

d) Euren jarduera duintasun, segurtasun eta higiene baldintza egokietan egitea, zereginen izaera eta ezaugarriak aintzat hartuta, betiere.

e) Zuzendaritzako kide direla erakusten duen egiaztagiria izatea.

f) Kirolaren esparruan egindako gizarte ekarpenarengatik errespetua eta ezagutza jasotzea.

g) Federazioaren zuzendaritza organoetan parte hartzeko behar duten informazioa eta dokumentazioa eskura izatea.

h) Egozten zaizkien funtzioak behar bezala betetzeko behar dituzten baliabide materialak era iraunkorrean jasotzea.

i) Federazioaren estatutuetako edo arautegietako arauetan jasota dauden bestelako eskubideak.

44. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren zuzendaritzako kideek honako betebehar hauek dituzte:

a) Euren betebeharrak gauzatzean jasotzen eta ezagutzen duten informazioaren gaineko konfidentzialtasuna gordetzea, hala dagokionean. Konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharrak iraun egingo du kargua uzten dutenean ere.

rencia y medios técnicos análogos. En estos supuestos, el acta correspondiente se redactará acompañada de los justificantes de los fax, correos electrónicos y soportes correspondientes.

Artículo 39

Son requisitos para ser miembro de la Asamblea General, de la Junta Directiva o para Presidenta o Presidente de la Federación Alavesa de Ciclismo, los siguientes:

a) Haber alcanzado la mayoría de edad.

b) Poseer la vecindad administrativa dentro del ámbito de actuación de la Federación. En circunstancias excepcionales la Asamblea General podrá dispensar de este requisito.

c) No estar sujeto a sanción disciplinaria firme que conlleve inhabilitación para el desempeño de cargos o funciones.

d) No haber sido condenado mediante sentencia judicial firme que conlleve la inhabilitación para ostentar cargo público.

e) No haber sido declarado incapaz por decisión judicial firme

Artículo 40

1.- De todos los acuerdos adoptados por los órganos federativos se levantará acta por el Secretario de la federación, que contendrá con carácter mínimo, el nombre de las personas que hayan intervenido, las circunstancias de lugar y tiempo en que la reunión se haya celebrado, los puntos principales de deliberación, la forma y el resultado de la votación y el contenido de los acuerdos.

2.- Los votos contrarios al acuerdo adoptado, siempre que sean motivados, eximirán de la responsabilidad que pudiera derivarse de las decisiones de los órganos colegiados.

Artículo 41

La Junta Directiva de la Federación Alavesa de Ciclismo podrá constituir cuantos comités y demás órganos análogos considere oportuno, tanto aquellos que respondan al desarrollo de un sector de la actividad deportiva de la Federación, como los que atiendan al funcionamiento de colectivos o estamentos integrantes de la Federación.

Artículo 42

1.- La Federación Alavesa de Ciclismo deberá contar con los órganos que establezca la normativa aplicable en materia de dopaje.

2.- La Federación Alavesa de Ciclismo contará con un comité técnico que será el órgano que asuma la dirección técnico-deportiva de la Federación.

Artículo 43

Las y los directivos de la Federación Alavesa de Ciclismo tienen los siguientes derechos:

a) Recibir del Gobierno Vasco y Diputación Foral de Álava la formación permanente del personal directivo de las federaciones y el asesoramiento técnico gratuito para el correcto desempeño de sus funciones.

b) Ser reembolsados por los gastos realizados en el desempeño de sus actividades dentro de los límites previamente establecidos por la propia Federación.

c) Disponer de un seguro, a través de la Federación, contra los riesgos de accidente y responsabilidad civil derivados directamente del ejercicio de la actividad voluntaria.

d) Realizar su actividad en las debidas condiciones de dignidad, seguridad e higiene en función de la naturaleza y características de sus funciones.

e) Disponer de una acreditación identificativa de su condición de directivo o directiva.

f) Obtener el respeto y el reconocimiento por su contribución social en el campo del deporte.

g) Disponer de la información y documentación precisa para su participación en los órganos directivos de la Federación.

h) Recibir con carácter permanente los medios materiales necesarios para el correcto ejercicio de las funciones que se les asignen.

i) Cualesquiera otros previstos en las normas estatutarias o reglamentarias de la Federación.

Artículo 44

Las y los directivos de la Federación Alavesa de Ciclismo están obligados a:

a) Guardar, cuando proceda, confidencialidad de la información recibida y conocida en el desarrollo de sus funciones. La obligación de confidencialidad subsistirá aun cuando hayan cesado en el cargo.

b) Funtzioak betetzean behar bezalako arduraz jokatzea, betiere Federazioaren estatutuetako helburuen arabera.

c) Kirol federazioek eskura jartzen dizkieten baliabide materialak errespetatzea eta zaintzea.

d) Federazioarekin hartutako konpromisoak betetzea.

e) Funtzioak behar bezala betetzeko antolatzen diren prestakuntza jardueretan parte hartzea.

f) Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan debekatuta dauden ordain ekonomikoei uko egitea, edozein eratakoak direla ere.

g) Funtzioak betetzen jarraitzea, harik eta ondorengoek kargua hartzen duten arte, ezinbestean utzi behar izatekotan salbu.

h) Organo eskudunek onartzen dituzten erabaki eta ebazpenei men egitea.

i) Kargua uzten duten zuzendaritzako kideen ordez sartzen direnei behar duten dokumentazio eta informazio guztia eskura jartzea.

j) Euren interes pertsonalekin zerikusia duten gaiak erabakitzeko eztabaidetan parte ez hartzea. Interes pertsonala egongo da, baldin eta gaiak zuzendaritzako kidearen ezkontideari edota antzeko afektibitate harremana duten pertsonei, haren ondorengoei edo aurrekoei eragiten badie, edota zuzendaritzako kargua nahiz neurri bateko partaidetza duen sozietate bati eragiten badio.

k) Kide den organoen bileretara joatea, eta parte hartze aktiboa izatea eztabaidetan, bere irizpideak erabaki egokiak hartzen lagun dezan.

l) Ematen zaion egiaztagiria behar bezala erabiltzea.

m) Federazioak onartzen duen kode etikoa betetzea, halakorik onartzen badu.

n) Federazioaren estatutuetako edo arautegietako arauetan jasota dauden bestelako betebeharrak.

45. artikulua

1.- Kirol Federazioko lehendakari kargua bateraezina izango da beste kirol federazio bateko lehendakari karguarekin, beste kirol modalitate bateko federazioa izan arren.

2.- Kirol Federazioko lehendakari kargua bateraezina da Federazioaren baitako kirol klub edo elkarte bateko lehendakari edo Batzar Nagusirako ordezkari karguarekin. Federazioko lehendakariak Batzarrean kirol klub edo elkarte baten ordezkari gisa hartzen badu parte, edo haren ordezkari gisa joan bada, lehendakari izan gabe ere, uko egin beharko dio kirol klub edo elkarteko lehendakari edo ordezkari karguari.

3.- Kirol Federazioko lehendakaritza bateraezina izango da Foru Administrazioaren edota Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren baitan federazioei zuzenean lotuta dauden kargu edo lanpostu publikoekin.

4.- Kirol Federazioko zuzendaritza kargua bateraezina da erakunde beraren kontseilari edo aholkulari profesional izatearekin. Halaber, Kirol Federazioko zuzendaritza kargua bateraezina da kirol erakunde berean zerbitzu profesionalak egitearekin harreman laboral, zibil edo merkantilaren bidez.

46. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren zuzendaritzako kideek debekatuta dituzte honako hauek:

a) Kargua utzarazi edo dimisioa aurkeztu eta gero kalte ordainak jasotzea.

b) Hirugarren pertsonengandik edo entitateengandik komisioak edo antzeko mozkinak jasotzea, kirol entitateak ondasunak edo zerbitzuak kontratatzearen truke.

c) Kirol helburuak edo helburu ekonomikoak lortzeagatik pizgarriak jasotzea.

d) Bere enpresen bitartez edo hirugarren pertsonen edo entitateen bitartez Kirol Federazioarekin kontratuak egitea. Autokontratatzeko debekuak ezkontideen, antzeko afektibitate harremanaz lotutako pertsonen eta ondorengoen nahiz aurrekoen enpresei ere eragiten die.

b) Actuar con la debida diligencia en el ejercicio de sus funciones, ateniéndose en todo momento a los fines estatutarios de la Federación.

c) Respetar y cuidar los recursos materiales que ponga a su disposición las correspondientes federaciones deportivas.

d) Cumplir con los compromisos adquiridos con la Federación.

e) Participar en las actividades formativas que se organicen para el diligente cumplimiento de sus funciones.

f) Rechazar cualquier tipo de contraprestación económica prohibida en el Decreto 16/2006, de 31 de enero.

g) Continuar en el ejercicio de sus funciones hasta la toma de posesión de sus sucesores, salvo fuerza mayor.

h) Acatar los acuerdos y resoluciones adoptados por los órganos competentes.

i) Proporcionar toda la documentación e información necesaria a las y los nuevos directivos que vayan a sustituir a las y los salientes.

j) Abstenerse de asistir e intervenir en las deliberaciones que afecten a asuntos en los que en que tengan interés personal. Se considerará que existe interés personal cuando el asunto afecte a cónyuge de la o el directivo o a personas vinculadas por análoga relación de afectividad o sus descendientes o ascendientes o a una sociedad en la que desempeñe un puesto directivo o tenga una participación significativa.

k) Asistir a las reuniones de los órganos de que forme parte y participar activamente en sus deliberaciones a fin de que su criterio contribuya en la toma de decisiones adecuadas.

l) Utilizar debidamente la acreditación proporcionada.

m) Cumplir el Código Ético que, en su caso, se apruebe por la Federación.

n) Cualesquiera otras previstas en las normas estatutarias o reglamentarias de esta Federación.

Artículo 45

1.- El cargo de Presidente o Presidenta de la Federación deportiva es incompatible con el cargo de Presidente o Presidenta de otra Federación deportiva, aunque sea de una modalidad deportiva diferente.

2.- El cargo de Presidente o Presidenta de la Federación deportiva es incompatible con el de Presidente o Presidenta o representante en la Asamblea, de un club, de una agrupación deportiva u otro tipo de entidad integrado en la misma. Cuanto el Presidente o Presidenta de la Federación haya concurrido a la Asamblea como Presidente o Presidenta de un club, agrupación deportiva o entidad de otro tipo, o haya concurrido como representante aun cuando no ostente la Presidencia, deberá dimitir como Presidente o Presidenta o representante del club, agrupación deportiva o entidad.

3.- La Presidencia de la Federación deportiva será incompatible con el desempeño de cargos o empleos públicos directamente relacionados con el ámbito federativo dentro de la Administración Foral y General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.- El cargo directivo de la Federación es incompatible con el ejercicio de funciones de consejo o asesoramiento profesional a la misma. Asimismo, el cargo directivo de la Federación deportiva es incompatible con la prestación de servicios profesionales bajo relación laboral, civil o mercantil a la misma.

Artículo 46

El personal directivo de la Federación Alavesa de Ciclismo tiene prohibido:

a) Percibir indemnizaciones tras el cese o dimisión en el cargo.

b) Percibir comisiones o beneficios análogos de terceras personas o entidades por la contratación de bienes y servicios por la entidad deportiva.

c) Percibir incentivos por la consecución de objetivos deportivos o económicos.

d) Contratar, a través de sus empresas o en nombre de terceras personas o entidades, con la propia Federación deportiva. Tal interdicción de autocontratación alcanza a las empresas de sus cónyuges, personas vinculadas con análoga relación de afectividad y de sus descendientes o ascendientes.

e) Kirol Federazioaren ondarea erabiltzea edo Federazioaren barruan duen postua baliatzea ondare abantailak lortzeko.

**IV. TITULUA**
**FEDERAZIOAREN ESTAMENTUAK**

47. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren estamentuetako kideek honako eskubide hauek izango dituzte, gutxienez:

a) Federazioaren organoetan ordezkaritza izatea eta haietako kide izatea, estatutu hauen eta aplikatzeko araudiaren arabera ezarritako eran, baldintzetan eta proportzioan.

b) Federazioak antolaturiko jarduera guztietan parte hartzea, Federazioak horren gainean ematen dituen arauen arabera.

c) Eskatzen duten informazioa jasotzea eta Federazioarekin zerikusia duten gaien inguruko irizpideak eta iritziak libreki adieraztea, kirola hobeto gara dadin.

d) Federazioaren organo eskudunetara jotzea, Federazioaren arauak bete daitezela eskatzeko.

e) Egoki iruditzen zaizkien kontsultak eta erreklamazioak egitea, Federazioaren arauekin bat etorriz.

f) Federazio lizentziaren agiria izatea.

48. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren estamentuetako kideek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Ezarritako kuotak ordaintzea.

b) Federazioaren organoetan era baliodunean onartutako erabakiak betetzea, horretarako eskumena duen organoak baliogabetzen edo bertan behera uzten ez dituen bitartean.

c) Federazioaren helburuak lortzen era aktiboan parte hartzea.

d) Dituzten karguei atxikitako betebeharrak leialki betetzea, kargurik izanez gero.

e) Arabako selekzioek kirol lehiaketetan parte hartzeko edo horiek prestatzeko egiten dituzten deialdietara joatea.

49. artikulua

Estatutu hauen helburuetarako, kirol klubak edo elkarteak dira Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeko III. Tituluan aurreikusitakoari jarraiki eratutako elkarteak.

50. artikulua

Klubek eta elkarteek, Arabako Txirrindularitza Federazioak antolatutako edo baimendutako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, dagokien lizentzia izan behar dute.

51. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioko kirolari dira kirolarien estamentuari dagokion federazio lizentzia duten pertsona fisikoak.

52. artikulua

1.- Arabako Txirrindularitza Federazioko teknikari dira Federazioak edo indarrean dagoen legediak eskatzen duten titulazioa izanik estamentu horretako federazio lizentzia duten pertsonak.

2.- Teknikoak, hala badagokie, Federazioko teknikarien elkargoan bilduko dira.

53. artikulua

1.- Arabako Txirrindularitza Federazioko epaileak dira erakunde eskudunak emandako beharrezko titulazioa eta dagokien federazio lizentzia duten pertsona fisikoak.

2.- Epaileak, hala badagokie, Federazioko epaileen elkargoan bilduko dira.

**V. TITULUA**
**DIZIPLINA ARAUBIDEA**

54. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren kirol diziplinako araubidea ondoan aipatzen diren arauei jarriki gobernatuko da: ekainaren 11ko 14/1998 Legeko X. tituluan jasota dagoena, urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretua edo hori ordezkatzen duen xedapena, Estatutu hauek eta Federazioaren Kirol Diziplinako Araudia.

e) Hacer uso del patrimonio de la Federación deportiva o valerse de su posición en la misma para obtener una ventaja patrimonial.

**TÍTULO IV**
**ESTAMENTOS FEDERATIVOS**

Artículo 47

Los integrantes de los estamentos de la Federación Alavesa de Ciclismo tendrán, como mínimo, los siguientes derechos:

a) Estar representados y formar parte de los órganos federativos en la forma,condiciones y proporción que les reconocen los presentes estatutos y la normativa aplicable.

b) Participar en cuantas actividades organice la Federación, conforme a las reglas que ésta dicte al respecto.

c) Recibir cuanta información soliciten y expresar libremente sus criterios y opiniones en temas federativos para el mejor desarrollo de este deporte.

d) Acudir a los órganos federativos competentes para instar el cumplimiento de las normas federativas.

e) Elevar las consultas y reclamaciones que estimen pertinentes conforme a las normas de la Federación.

f) Disponer del documento justificativo de la licencia.

Artículo 48

Los integrantes de los estamentos de la Federación Alavesa de Ciclismo tendrán los siguientes deberes:

a) Pagar las cuotas que se establezcan.

b) Cumplir todos los acuerdos válidamente adoptados por los órganos federativos en tanto no sean anulados o suspendidos por el órgano competente.

c) Colaborar activamente en la consecución de los fines de la Federación.

d) Cumplir fielmente las obligaciones inherentes a los cargos que en su caso desempeñen.

e) Asistir a las convocatorias de las selecciones alavesas para la participación en competiciones deportivas o para la preparación de las mismas.

Artículo 49

A los efectos de los presentes estatutos, son clubes o agrupaciones deportivas las asociaciones constituidas con arreglo a lo previsto en el Título III de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco.

Artículo 50

Los clubes y agrupaciones, para la participación en competiciones oficiales organizadas o autorizadas por la Federación Alavesa de Ciclismo deberán disponer de la correspondiente licencia.

Artículo 51

Son deportistas de la Federación Alavesa de Ciclismo las personas físicas titulares de la licencia federativa correspondiente al estamento de deportistas.

Artículo 52

1.- Son técnicas y técnicos de la Federación Alavesa de Ciclismo las personas en posesión del título exigido por la Federación o la legislación vigente y que ostenten la correspondiente licencia federativa de este estamento.

2.- Los técnicos se agruparán, en su caso, en el colegio de técnicos de la Federación.

Artículo 53

1.- Son juezas y jueces de la Federación Alavesa de Ciclismo las personas físicas en posesión de la titulación necesaria emitida por el organismo competente y de la correspondiente licencia federativa.

2.- Los jueces se agruparán, en su caso, en el colegio de jueces de la Federación.

**TÍTULO V**
**RÉGIMEN DISCIPLINARIO**

Artículo 54

El régimen disciplinario de la Federación Alavesa de Ciclismo se regirá por lo dispuesto en el Título X de la Ley 14/1998, de 11 de junio, por el Decreto 7/1989, de 10 de enero, o disposición que lo sustituya, por los presentes estatutos y por el Reglamento de Disciplina Deportiva de la propia Federación.

55. artikulua

1.- Arabako Txirrindularitza Federazioak bere egitura organikoko kide diren pertsonen gainean eta Federazioko kide diren pertsona fisiko edo juridikoen gainean baino ez du izango diziplina ahalmena.

2.- Federazioak ezin izango du diziplina ahalmena erabili kirol modalitate bereko beste lurralde eremuetako federazioetako kideen kasuan, kirol jarduera Arabako Lurralde Historikoan badute ere.

56. artikulua

Diziplina Batzordea Arabako Txirrindularitza Federazioaren organo eskuduna da, Federazioaren beste organoetatik aparte kirol diziplinarako ahalmena erabiltzen duena.

57. artikulua

1.- Diziplina Batzordeak kide bakarra edukiko du: diziplina epailea, Zuzendaritza Batzordeak izendatua.

2.- Diziplina epailea lau urterako izango da izendatua, lehendakaritza-aldi bakoitzaren hasieran. Bere borondatez kargua uzten badu, Zuzendaritza Batzordeak beste diziplina epaile bat izendatu ahal izango du agintaldia amaitu bitarterako.

Karguan aritzeko behar adinako ezagutza eduki behar du epaileak.

3.- Zuzendaritza Batzordeko kideek ezingo dituzte diziplina epailearen funtzioak bete.

4.- Agintaldian zehar diziplina epailearen izendapena atzera bota dezake Federazioaren Batzarrak.

58. artikulua

Diziplina epaileak hartzen dituen erabakiak inpugnatu egin daitezke Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren Apelazio Batzordearen aurrean.

## VI. TITULUA
## HAUTESKUNDE ARAUBIDEA

59. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren hauteskunde araubidea honako hauei jarraiki gobernatuko da: urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren VII. Titulua, horren garapeneko xedapenak, estatutu hauek eta Federazioaren Batzar Nagusiak onetsi beharko duen hauteskunde arautegia.

60. artikulua

Federazioaren Batzar Nagusia aukeratzeko hautesleria osatuko dute Federazioaren estamentu guzti-guztietako lizentzien titularrak, dagokion hauteskunde arautegian zehazten diren baldintzetan.

Hautesle eta hautagai izaera Euskadiko Kirol Federazioen Dekretuan, Estatutu hauetan eta Federazio honetako Hauteskunde Arautegian ezarritakora lotuko da.

61. artikulua

Federazioak Hauteskunde Batzorde bat izango du hauteskunde prozesua bultzatzeko eta behar bezala gauza dadin bermatzeko. Hiru kidez osatuko da; horietako bat lehendakaria izango da, eta beste bat idazkaria. Kargu horiek Batzordeko kideen artean hautatuko dira, eta izendapenik egiten ez bada, zaharrena izango da lehendakaria eta gazteena idazkaria.

62. artikulua

Hauteskunde Batzordearen eginkizunak lau urterako izango dira, nahiz eta Batzar Nagusiak ahalmena izango duen aldi hori amaitu aurretik Batzordea desegin eta beste bat izendatzeko.

63. artikulua

1.- Hauteskunde Batzordeko kideak, eta horien ordezkoak, Batzar Nagusian hautatuko dira, hauteskunde prozesua hasi aurreko azkeneko ohiko batzarrean, edo, inor aurkezten ez bada, hautagai izango ez direnen arteko zozketa publikoaren bidez.

2.- Hautagai gisa aurkeztera doazenak ezingo dira inola ere Hauteskunde Batzordeko kide izan; izendatutako Hauteskunde

Artículo 55

1.- La Federación Alavesa de Ciclismo sólo tendrá potestad disciplinaria sobre todas las personas que formen parte de su estructura orgánica y sobre todas aquellas personas físicas o jurídicas afiliadas a la misma.

2.- La Federación no podrá ejercer la potestad disciplinaria respecto a aquellos miembros de federaciones de otros ámbitos territoriales y de la misma actividad deportiva, aunque desarrollen su actividad deportiva en el ámbito del Territorio Histórico de Alava.

Artículo 56

El Comité de Disciplina es el órgano de la Federación Alavesa de Ciclismo que ejerce la potestad disciplinaria deportiva con independencia de los demás órganos federativos.

Artículo 57

1.- El Comité de Disciplina estará formado por una única persona designada por la Junta Directiva y será nominado como Juez de Disciplina.

2.- El Juez de Disciplina será nombrado para que ostente el cargo y función por término de cuatro años, al inicio de cada mandato presidencial. En caso de cese voluntario la Junta Directiva podrá nombrar otro Juez de Disciplina por el tiempo que resta del mandato.

El Juez de Disciplina deberá tener conocimientos específicos suficientes para desempeñar su función.

3.- No podrán desempeñar las funciones de Juez de Disciplina los miembros de la Junta Directiva.

4.- Durante el periodo de su mandato la designación del Juez de Disciplina podrá ser revocada por la Asamblea de la federación.

Artículo 58

Las decisiones que adopte el Juez de Disciplina serán impugnables ante el Comité de Apelación de la Federación Vasca de Ciclismo.

## TÍTULO VI
## RÉGIMEN ELECTORAL

Artículo 59

El régimen electoral de la Federación Alavesa de Ciclismo se regirá por lo dispuesto en el Título VII del Decreto 16/2006, de 31 de enero, por las disposiciones que se dicten en desarrollo del mismo, por los presentes estatutos y por el correspondiente Reglamento Electoral que deberá ser aprobado por la Asamblea General de la Federación.

Artículo 60

Para la elección de la Asamblea General de la Federación el cuerpo electoral estará compuesto por los titulares de licencias de todos y cada uno de los estamentos federativos, en las condiciones que se señale en el correspondiente Reglamento Electoral.

La condición de electores y elegibles se ajustará a lo dispuesto en el Decreto de Federaciones Deportivas del País Vaso, en los presentes Estatutos y en el Reglamento Electoral de esta Federación.

Artículo 61

En la Federación existirá una Junta Electoral encargada de impulsar el proceso electoral y velar por su correcto desarrollo. La Junta Electoral estará formada por tres miembros, actuando uno de ellos como Presidente o Presidenta y otro como Secretario, cargos que serán elegidos entre los propios miembros para asumir dichas funciones y, en caso de no designarse entre ellos, actuará como Presidente o Presidenta el de mayor edad y como Secretario el de menor edad.

Artículo 62

El ejercicio de las funciones de la Junta Electoral tendrá una duración de cuatro años, sin perjuicio de que la Asamblea General pueda destituirla y nombrar otra antes de la conclusión de dicho periodo.

Artículo 63

1.- Los miembros de la Junta Electoral, así como los suplentes, serán elegidos por la Asamblea General en la última Asamblea Ordinaria previa al inicio del proceso electoral o por sorteo público entre las personas que no vayan a ser candidatas o candidatos en el caso de no presentarse nadie.

2.- En ningún caso podrán formar parte de la Junta Electoral los que fueran a presentarse como candidatos; si esta condición

Batzordeko kideren bat egoera horretan balego, kargua utzi beharko du eta izendatzen den ordezkoak hartu beharko du beraren lekua.

64. artikulua

1.- Hauteskunde Batzordeak honako funtzio hauek izango ditu:

a) Hautesleen errolda eta hauteskunde egutegia onartzea.

b) Aurkezten diren hautagaitzak aldarrikatzea eta argitara ematea.

c) Hauteskunde Mahaia izendatzea.

d) Batzar Nagusiko kideen kopuru zehatza finkatzea, hauteskunde erroldari erreparatuta, Estatutu hauetako 16.2 puntuarekin eta Hauteskunde Arautegiak ezartzen dituen irizpideekin bat etorriz, halakorik ezartzen badu.

e) Hautetsiak zein diren aldarrikatzea.

f) Aurkezten diren inpugnazioak, erreklamazioak eta eskaerak ebaztea, bai eta Hauteskunde Mahaiaren erabakien aurka jartzen diren errekurtsoak ere.

g) Hauteskundeak egiteari eta hauteskundeetako emaitzei zuzenean eragiten dien edozein gai.

2.- Hauteskunde Batzordeak hartzen dituen erabakiak Kirol Justiziako Euskadiko Batzordearen aurrean inpugnatu ahal izango dira.

65. artikulua

Hauteskunde Batzordeak, hautagai izan behar ez duten hautesleen artean zozketa eginda, Hauteskunde Mahaia izendatuko du. Mahaia hiru pertsonak osatuko dute eta hiru ordezko egongo dira. Haietako bat lehendakaria izango da, eta beste bat idazkaria, Mahaiko kideen artean hautatuta. Izendapenik egiten ez bada, zaharrena izango da lehendakaria eta gazteena idazkaria.

66. artikulua

1.- Hauteskunde Mahaiak honako funtzio hauek izango ditu:

a) Bozketak behar bezala egin daitezen bermatzea.

b) Bozkatzen duten pertsonen identitatea eta hautesle izaera egiaztatzea.

c) Ematen diren botoak baliozkoak diren erabakitzea.

d) Behin bozkatutakoan, botoak zenbatzea.

e) Bozketari dagokion beste edozein gairi buruz erabakitzea.

2.- Hauteskunde Mahaiaren erabakiak Hauteskunde Batzordearen aurrean inpugnatu ahal izango dira.

## VII. TITULUA
## EKONOMIA ETA ONDARE ARAUBIDEA

67. artikulua

1.- Arabako Txirrindularitza Federazioak berezko aurrekontu eta ondare erregimena ditu.

2.- Kirol Federazioaren ondarea osatzen dute Federazioak titular gisa dituen ondasun guztiek.

3.- Federazioak honako baliabide hauek ditu:

a) Federatuen kuotak.

b) Erakunde publikoek edo pribatuek emandako dirulaguntzak.

c) Dohaintzak, herentziak, legatuak eta sariak.

d) Antolatzen diren kirol jardueretan eta lehiaketetan ateratako mozkinak.

e) Egiten dituen industria, merkataritza, lanbide edo zerbitzu jardueretatik ateratako mozkinak.

f) Euren ondarearen fruituak eta ondarea besterentzetik edo zergapetzetik ateratzen dena, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 138. artikuluan ezarritako baldintzetan.

g) Lortzen dituzten maileguak edo kredituak.

h) Euren jarduera egitean lor dezakeen beste edozein.

68. artikulua

1.- Federazioaren diru sarrera guztiak, kirol jardueretan lortutako mozkinak eta sariak nahiz industria, merkataritza, lanbide edo zerbitzu izaerako jardueretatik atera ditzakeenak, Federazioaren xedea garatzeko erabiliko dira oso-osorik.

2.- Mozkinak ezin izango dira inola ere Federazioko kideen artean banatu.

recayese en alguno de los componentes de la Junta Electoral nombrada, deberá cesar y ocupar su lugar el suplente designado.

Artículo 64

1.- La Junta Electoral tendrá encomendadas las siguientes funciones:

a) Aprobar el censo de electores y el calendario electoral.

b) Proclamar y publicar las candidaturas presentadas.

c) Designar la mesa electoral.

d) Determinar la cifra exacta de miembros de la Asamblea General a la vista del censo electoral de acuerdo con lo señalado en el artículo 16, punto 2, de estos Estatutos y de acuerdo con los criterios que, en su caso, establezca el Reglamento Electoral.

e) Proclamar los candidatos electos.

f) Resolver las impugnaciones, reclamaciones, peticiones que se presenten y los recursos que se interpongan contra las decisiones de la mesa electoral.

g) Cualquier cuestión que afecte directamente a la celebración de las elecciones y a sus resultados.

2.- Las decisiones que adopte la Junta Electoral serán impugnables ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva.

Artículo 65

La Junta Electoral, previo sorteo entre los electores que no vayan a ser candidatos, designará una Mesa Electoral compuesta por tres miembros, así como un número igual de suplentes, siendo su Presidente o Presidenta y secretario los que así sean elegidos entre ellos para asumir dichas funciones y, en caso de no designarse entre ellos, actuará como Presidente o Presidenta el de mayor edad y como Secretario el de menor edad.

Artículo 66

1.- La Mesa Electoral tendrá las siguientes funciones:

a) Velar por el correcto desarrollo de las votaciones.

b) Comprobar la identidad de los votantes y su condición de electores.

c) Resolver sobre la validez de los votos emitidos.

d) Efectuar el recuento de los votos una vez terminada la emisión de los mismos.

e) Resolver cualquier otro asunto relativo a la votación.

2.- Las decisiones que adopte la Mesa Electoral serán impugnables ante la Junta Electoral.

## TÍTULO VII
## RÉGIMEN ECONÓMICO-PATRIMONIAL

Artículo 67

1.-La Federación Alavesa de Ciclismo está sujeta al régimen de presupuesto y patrimonio propio.

2.- El patrimonio de la Federación estará integrado por los bienes cuya titularidad le corresponda.

3.- Son recursos de la Federación los siguientes:

a) Las cuotas de los federados.

b) Las subvenciones que las entidades públicas o privadas puedan concederles.

c) Las donaciones, herencias, legados y premios.

d) Los beneficios que produzcan las actividades y competiciones deportivas que organice.

e) Los beneficios derivados de las actividades industriales, comerciales, profesionales o de servicios que realice.

f) Los frutos de su patrimonio y el producto de la enajenación o gravamen del mismo, en las condiciones establecidas en el artículo 138 del Decreto 16/2006, de 31 de enero.

g) Los préstamos o créditos que obtenga.

h) Cualesquiera otros que pudiera obtener en el desarrollo de su actividad.

Artículo 68

1.- Todos los ingresos federativos, incluidos los beneficios y los premios obtenidos en manifestaciones deportivas, así como los que pudiera obtener la Federación del ejercicio de actividades de carácter industrial, comercial, profesional o de servicios, se aplicarán íntegramente al desarrollo de su objeto social.

2.- Bajo ningún concepto se podrá efectuar reparto de beneficios entre los miembros de la Federación.

69. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioak ondasun higiezinak besterendu edo zergapetu egin ditzake, dirua har dezake maileguan eta zorraren edo ondare parte alikuotaren titulu ordezkatzaileak jaulki ditzake, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 138. eta 139. artikuluetan ezarritako kasuetan eta baldintzetan.

70. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioak goi zuzendaritzako lan kontratuak izenpetu ahal izango ditu, baldin eta erabakia eta ordainsaria zein kontratuko bestelako baldintzak gehiengo osoz onartzen badira Batzar Nagusian, eta baldin eta Arabako Foru Aldundiko organo eskudunak baimena ematen badu.

71. artikulua

1.- Arabako Txirrindularitza Federazioak urtero onartuko du ekitaldiko aurrekontua eta likidazioa.

2.- Zuzendaritza Batzordearen ardura da urtero aurrekontuen proiektua egitea, eta Batzar Nagusiari dagokio onartzea.

3.- Aurrekontuan Federazioak gehienez onar ditzakeen betebeharrak adierazi beharko dira (zifraz hornituri k, era bateratuan eta sistematikoki), bai eta ekitaldian zehar likidatzea aurreikusita dagoen eskubideak ere. Era berean, Arabako Txirrindularitza Federazioaren aurrekontuan jasota egon behar dute kirol modalitate horretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko betebeharrak.

4.- Aurrekontu bakarra egongo da, eta Federazioaren gastu eta diru sarrera guztiak sartuta edukiko ditu, organo osagarrienak eta horien laguntzarako entitateenak barne. Kudeaketa edo antolamendu beharrek hala eskatzen dutenetan, Arabako Txirrindularitza Federazioak kontabilitateko azpierakundeak sortu ahal izango ditu, sistema zentralean behar bezala integratuta egongo direnak.

5.- Aurrekontua orekatua izango da, eta inolaz ere ezingo da onartu defizita sortzen duen aurrekonturik aldez aurretik Arabako Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena eskuratu gabe.

6.- Behin Batzar Nagusiaren onarpena lortutakoan, ekitaldiko aurrekontua eta aurreko urteko aurrekontuaren likidazioa Arabako Foru Aldundiko organo eskudunari helaraziko zaizkio.

7.- Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak aurrekontua aldatu ahal izango du, betiere aldaketa gastuen aurrekontu osoaren % 20 baino gehiagokoa ez denean.

8.- Guztizko aurrekontuaren % 20 gainditzen duten programa arteko kreditu transferentzietarako, Arabako Foru Aldundiaren baimena behar izango da.

72. artikulua

1.- Ekitaldi bakoitza itxi eta hiru hilabete igaro baino lehenago, Arabako Txirrindularitza Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiari aurkeztuko dizkio urteko kontuak, honako hauek barnean dituztela: balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria ekonomikoa.

2.- Zuzendaritza Batzordeak aurkezten dituen urteko kontuak lehendakariak eta diruzainak izenpetuta egongo dira.

3.- Federazioaren urteko kontuen egitura bat etorriko da Kirol Federazioetara egokitutako Kontabilitate Plan Orokorraren arauekin.

73. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioak onartu egin beharko du finantza eta kudeaketa auditoretza, eskuduna den Administrazioak hala eskatzen duenean, dagozkion kasu eta ekitaldietan.

## VIII. TITULUA
## AGIRI ARAUBIDEA

74. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioak liburu hauek izango ditu, nahitaez:

a) Federazioaren estamentuen liburua, estamentu bakoitzari dagozkion ataletan banatuta. Estamentuetako zerrendak eguneratuta egongo dira, eta alta eta baja egunak jasota.

Artículo 69

La Federación Alavesa de Ciclismo podrá gravar y enajenar los bienes inmuebles, tomar dinero a préstamo y emitir títulos representativos de deuda o de parte alícuota patrimonial, en los casos y condiciones establecidas en los artículos 138 y 139 del Decreto 16/2006, de 31 de enero.

Artículo 70

La Federación Alavesa de Ciclismo podrá suscribir contratos laborales de alta dirección siempre que el acuerdo, así como la cuantía de la remuneración y las demás condiciones del contrato, sean aprobados por la mayoría absoluta de miembros presentes de la Asamblea General y sea autorizado dicho contrato por el órgano competente de la Diputación Foral de Alava.

Artículo 71

1.- La Federación Alavesa de Ciclismo aprobará anualmente el presupuesto del ejercicio, así como la liquidación.

2.- Corresponderá a la Junta Directiva la elaboración del proyecto de presupuesto y su aprobación será competencia de la Asamblea General.

3.- El presupuesto expresará, cifrada, conjunta y sistemáticamente, las obligaciones que, como máximo, puede contraer la Federación y los derechos que se prevén liquidar durante el correspondiente ejercicio. El presupuesto de la Federación Alavesa de Ciclismo deberá reflejar, asimismo, las obligaciones relacionadas con la promoción de la igualdad de mujeres y hombres en dicha modalidad deportiva.

4.- El presupuesto será único e incluirá la totalidad de los gastos e ingresos de la Federación, incluidos los órganos complementarios o entidades instrumentales de la misma. Cuando las necesidades de gestión u organización lo requieran, la Federación Alavesa de Ciclismo podrá crear subentidades contables debidamente integradas en el sistema central.

5.- El presupuesto será equilibrado y en ningún caso podrá aprobarse un presupuesto deficitario sin obtener la autorización previa del órgano competente de la Diputación Foral de Alava.

6.- Una vez obtenida la aprobación de la Asamblea General se dará traslado del presupuesto y de la liquidación del presupuesto anterior al órgano competente de la Diputación Foral de Alava.

7.- La Junta Directiva de la Federación podrá acordar las modificaciones presupuestarias que no excedan del 20 % del presupuesto total de gastos.

8.- La transferencia de créditos entre programas que supongan más del 20% del presupuesto total de la Federación requerirá autorización de la Diputación Foral de Alava.

Artículo 72

1.- Dentro de los tres meses siguientes al cierre de cada ejercicio, la Junta Directiva de la Federación Alavesa de Ciclismo elevará a la Asamblea General las cuentas anuales, que comprenderán el balance, la cuenta de pérdidas y ganancias y la memoria económica.

2.- Las cuentas anuales que formule la Junta Directiva deberán estar firmadas por la o el Presidente o Presidenta y el Tesorero.

3.- Las cuentas anuales de la Federación se ajustarán en su estructura a las normas de adaptación del Plan General de Contabilidad adaptado a las Federaciones Deportivas.

Artículo 73

La Federación Alavesa de Ciclismo se someterá a auditoria financiera y de gestión cuando así se exija por la Administración pública competente, en los casos y ejercicios que proceda.

## TÍTULO VIII
## RÉGIMEN DOCUMENTAL

Artículo 74

La Federación Alavesa de Ciclismo llevará obligatoriamente los siguientes libros:

a) Libro de estamentos federativos, dividido en aquellas secciones que se correspondan con cada estamento. Tal libro contendrá la relación actualizada de los mismos así como la fecha de incorporación y baja.

b) Federazioaren akta liburua; bertan jasota egongo dira Batzar Nagusiak, Zuzendaritza Batzarrak eta Federazioaren gainerako organoek hartzen dituzten erabakiak.

c) Kontabilitate liburuak.

d) Halakorik izatera, zorraren edo ondare parte alikuotaren tituluen erregistro liburua.

e) Gatazkak epaitegietatik kanpora ebazteko araubidearen mende egotetik salbuestearen erregistro liburua.

Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroak aurreikusitakoaren arabera bideratuko dira liburu horiek.

**IX. TITULUA**
**FEDERAZIOA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA**

75. artikulua

1.- Arabako Txirrindularitza Federazioa desegin egingo da:

a) Aparteko Batzar Nagusiak hala erabakitzen duenean, bildutakoen bi herenen gehiengoaz.

b) Horretarako erabaki judiziala ematen denean.

2.- Arabako Txirrindularitza Federazioa desegin egin behar da honako hauetakoren bat gertatuz gero:

a) Federazioaren onarpen ofiziala baliogabetzea.

b) Administrazio izaerako funtzio publikoak behar bezala betetzeko ageriko ezintasuna izatea.

c) Federazioaren organoak gelditzea, eta, ondorioz, funtzionamendua ezinezkoa izatea.

d) Egotzi zaizkion funtzio publikoak ez betetzea.

e) Beste kirol federazio batekin bat egitea.

f) Beste kirol federazio batean sartzea.

g) Indarrean diren legeetan aurreikusita dagoen beste edozein arrazoi dela medio.

76. artikulua

1.- Federazioko lehendakariak Batzar Nagusirako deialdia egingo du, desegiteko erabakia har dezan. Erabakia bi hilabeteko epean hartu behar du Batzarrak, desegiteko kausaren berri izaten duen unetik kontatzen hasita.

2.- Pertsona federatuek eta Arabako Foru Aldundiko organo eskudunak ere eska diezaiokete lehendakariari Batzar Nagusirako deialdia egitea, baldin eta, haien ustez, aurreko artikuluan zehaztuta dauden kausetako bat gertatzen bada.

3.- Batzar Nagusirako deialdirik egiten ez bada, desegiteko erabakia hartzerik ez bada, edo ez desegitea erabakitzen bada, edozein federatuk edo Arabako Foru Aldundiak berak eskatu ahal izango du Federazioaren desegite judiziala.

4.- Federazioaren Zuzendaritza Batzordea bera behartuta dago desegite judiziala eskatzera, Federazioaren erabakia desegitearen aurkakoa baldin bada, edo ezin bada desegiteko erabakia lortu.

77. artikulua

Federazioa desegindakoan, likidatzeko aldia hasten da, bategiteak edo desegiten den federazioaren aktiboen eta pasiboen lagapen globala gertatzen denetan izan ezik.

78. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioak, desegin eta gero, nortasun juridikoa gordetzen du likidatzen ari den bitartean. Aldi horretan «likidatzen» hitza gehitu beharko dio bere izenari.

79. artikulua

Federazioak likidatzen ari dela adierazten duen unean, Zuzendaritza Batzordeak bere funtzioak bertan behera utziko ditu, eta likidatzaileek hartuko dituzte euren gain funtziook. Hala ere, Zuzendaritza Batzordeko kideek parte hartu beharko dute likidazio eragiketak gauzatzen.

80. artikulua

1.- Batzar Nagusiari dagokio likidatzaileak izendatzea. Likidatzaileen kopurua beti bakoitia izango da.

2.- Likidatzaileen izendapena eta kargu uztea Kirol Erakundeen Euskadiko Erregistroan inskribatu beharko da.

81. artikulua

Honako hauek dira Federazioaren likidatzaileen funtzioak:

b) Libro de actas de la Federación, donde constarán los acuerdos que adopten la Asamblea General, la Junta Directiva y demás órganos de la Federación.

c) Libros de contabilidad.

d) En su caso, Libro de Registro de títulos de deuda o de parte alícuota patrimonial.

e) Libro registro de exclusión de sometimiento al régimen de resolución extrajudicial de conflictos.

Estos libros deberán diligenciarse en conformidad con lo previsto por el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

**TÍTULO IX**
**DISOLUCIÓN Y LIQUIDACIÓN DE LA FEDERACIÓN**

Artículo 75

1.- La Federación Alavesa de Ciclismo se disolverá:

a) Por acuerdo de la Asamblea General extraordinaria adoptado por mayoría de dos tercios de los presentes.

b) Por decisión judicial.

2.- La Federación Alavesa de Ciclismo deberá disolverse por las siguientes causas:

a) Por la revocación del reconocimiento oficial de la Federación.

b) Por la imposibilidad manifiesta de ejercer adecuadamente las funciones públicas de carácter administrativo.

c) Por la paralización de los órganos federativos de modo que resulte imposible su funcionamiento.

d) Por la falta de ejercicio de las funciones públicas encomendadas.

e) Por su fusión con otra Federación deportiva.

f) Por su integración en otra Federación deportiva.

g) Por cualesquiera otras causas previstas en la legislación vigente.

Artículo 76

1.- El Presidente o Presidenta de la Federación deberá convocar a la Asamblea General para que la misma adopte el correspondiente acuerdo de disolución en el plazo de dos meses desde que tenga conocimiento de la existencia de la causa determinante de la disolución.

2.- Las personas federadas y el órgano competente de la Diputación Foral de Alava también podrán requerir al Presidente o Presidenta para que convoque la Asamblea General si, a su juicio, concurre cualquiera de las causas enumeradas en el artículo anterior.

3.- En el caso de que la Asamblea General no fuese convocada o no pudiese lograrse el acuerdo, o este fuera contrario a la disolución, cualquier federado o federada o la propia Diputación Foral de Alava podrá solicitar la disolución judicial de la Federación.

4.- La Junta Directiva de la Federación estará obligada a solicitar la disolución judicial cuando el acuerdo federativo fuera contrario a la disolución o no pudiera ser logrado.

Artículo 77

Una vez disuelta la Federación se abrirá el periodo de liquidación, salvo en los supuestos de fusión o cualquier otro supuesto de cesión global del activo y pasivo de la federación disuelta.

Artículo 78

La Federación Alavesa de Ciclismo, una vez disuelta, conservará su personalidad jurídica mientras se encuentre en liquidación. Durante esta fase deberá añadir a su denominación la frase “en liquidación”.

Artículo 79

Desde el momento en que la Federación se declare en liquidación cesará en sus funciones la Junta Directiva, asumiendo las y los liquidadores sus funciones. No obstante lo anterior, las y los integrantes de la Junta Directiva deberán prestar su concurso para la realización efectiva de las operaciones de liquidación.

Artículo 80

1.- Corresponderá a la Asamblea General de la Federación el nombramiento de liquidadores o liquidadoras, cuyo número será siempre impar.

2.- El nombramiento y cese de las y los liquidadores deberá inscribirse en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

Artículo 81

Incumbe a las y los liquidadores de la Federación las siguientes funciones:

a) Euren funtzioetan hastean Federazioak duen hasierako balantzea izenpetzea, administrazio organoarekin batera.

b) Federazioko liburuez eta korrespondentziaz arduratzea eta horiek zaintzea, bai eta Federazioaren ondarearen osotasuna bermatzea ere.

c) Federazioa likidatzeko egiteke dauden eragiketak nahiz behar diren eragiketa berriak gauzatzea.

d) Federazioaren ondasunak eta eskubideak besterentzea. Ondasun higiezinak enkante publikoan salduko dira nahitaez. Arabako Foru Aldundiak baimentzen duen kasuetan baino ezin izango dira zuzenean saldu.

e) Transakzioak eta arbitrajeak hitzartzea, Federazioaren interesei hala komeni zaienean.

f) Hartzekodunei ordaintzea.

g) Federazioaren ordezkari izatea.

82. artikulua

Likidazioa amaitutakoan, likidatzaileek azken balantzea egingo dute. Balantzea Batzar Nagusiari aurkeztuko zaio, onets dezan; gero, Arabako Foru Aldundira bidaliko da.

83. artikulua

Honako hauek dira likidatzaileen jarduera amaitzeko arrazoiak:

a) Likidazioa burutzea.

b) Batzar Nagusiak emandako ahalordeak baliogabetzea.

c) Arabako Foru Aldundiak ahalordeak baliogabetzea edo gaitasunik gabe uztea.

d) Erabaki judiziala.

84. artikulua

Baldin eta Federazioak ez badu kaudimenik, likidatzaileek berehala eskatu behar dute dagokion lehiaketa adierazpena.

85. artikulua

Batzorde likidatzaileak Federazioaren desegitea Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroari jakinaraziko dio, inskripzioan deuseztatu dezan.

## X. TITULUA
## ESTATUTUAK ETA ARAUDIAK

86. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren estatutuak aparteko Batzar Nagusiak bakarrik aldatu ahal izango ditu, bildutakoen 2/3en gehiengoaz hartutako erabakiaren bidez.

87. artikulua

Behin estatutuen proiektua onetsi ondoren, Batzar Nagusiaren erabakitik kontatzen hasi eta hirurogei egun naturaleko epean, Arabako Foru Aldundiari aurkeztuko zaio, onets dezan.

88. artikulua

Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan aurkeztu beharko dira, eta Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroak eskatzen duen euskarri informatikoan.

89. artikulua

Federazioaren estatutuak indarrean sartzeko, administrazio onespena jaso beharko dute, eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

90. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioak ondorengo hauek arautu beharko ditu gutxienez:

a) Lehiaketa ofizialak antolatzeko eta garatzeko araubidea.

b) Diziplina araubidea.

c) Hauteskunde araubidea.

d) Gatazkak epaitegietatik kanpora ebazteko araubidea.

91. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren araudiak onar ditzan aurkeztuko zaizkio Arabako Foru Aldundiko organo eskudunari, hirurogei egun naturaleko epean Federazioaren Batzar Nagusian onartzen diren unetik kontatzen hasita.

92. artikulua

Araudiak onartu eta aldatu ahal izateko, horretarako deitutako aparteko Batzar Nagusira joaten diren kideen gehiengoak aldeko botoa eman beharko du.

a) Suscribir, en unión del órgano de administración, el balance inicial de la Federación al comenzar sus funciones.

b) Llevar y custodiar los libros y correspondencia de la Federación y velar por la integridad de su patrimonio.

c) Realizar aquellas operaciones pendientes y las nuevas que sean necesarias para la liquidación de la Federación.

d) Enajenar los bienes y derechos federativos. Los bienes inmuebles se venderán necesariamente en subasta pública. Sólo procederá la venta directa en aquellos supuestos autorizados por la Diputación Foral de Alava.

e) Concertar transacciones y arbitrajes cuando así convenga a los intereses federativos.

f) Pagar a los acreedores y acreedoras.

g) Ostentar la representación de la Federación.

Artículo 82

Terminada la liquidación, las y los liquidadores formarán el balance final que se someterá a la aprobación de la Asamblea General y se remitirá a la Diputación Foral de Alava.

Artículo 83

La función de las y los liquidadores finalizará por:

a) La realización de la liquidación.

b) La revocación de los poderes otorgados por la Asamblea General.

c) La revocación de los poderes o inhabilitación por la Diputación Foral de Alava.

d) Por decisión judicial.

Artículo 84

En caso de insolvencia de la Federación, las y los liquidadores deberán solicitar inmediatamente la declaración concursal correspondiente.

Artículo 85

La extinción de la Federación se notificará por la comisión liquidadora al Registro de Entidades Deportivas del País Vasco para que proceda a la cancelación de la inscripción.

## TÍTULO X
## ESTATUTOS Y REGLAMENTOS

Artículo 86

Los estatutos de la Federación Alavesa de Ciclismo sólo podrán ser modificados por acuerdo de la Asamblea General extraordinaria adoptado por mayoría de 2/3 de miembros presentes en la reunión.

Artículo 87

Aprobado el proyecto de estatutos se presentará para su aprobación a la Diputación Foral de Alava en el plazo de sesenta días naturales a partir del acuerdo de la Asamblea General.

Artículo 88

Dichos estatutos deberán presentarse en las dos lenguas de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en el soporte informático que sea requerido.

Artículo 89

La vigencia de los estatutos de la Federación estará vinculada a su aprobación administrativa y posterior publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Artículo 90

La Federación Alavesa de Ciclismo deberá reglamentar como mínimo:

a) El régimen de organización y desarrollo de sus competiciones oficiales.

b) El régimen disciplinario.

c) El régimen electoral.

d) El régimen de resolución extrajudicial de conflictos.

Artículo 91

Los reglamentos de la Federación Alavesa de Ciclismo se presentarán para su aprobación administrativa en el órgano competente de la Diputación Foral de Álava en el plazo de sesenta días naturales a contar desde su aprobación por la Asamblea General.

Artículo 92

Para la aprobación y modificación de los reglamentos será preciso el voto favorable de la mayoría de los asistentes a la Asamblea General extraordinaria convocada al efecto.

93. artikulua

1.- Federazioaren zirkularrak estatutuen eta arautegien indarraldia, aplikazioa, interpretazioa nahiz Federazioari dagozkion bestelako gaiak ezagutarazteko erabiliko dira, baina ez dute arau izaerarik izango.

2.- Federazioaren zirkularrek ez dute aldez aurretik administrazio onespenik behar.

94. artikulua

1.- Lurralde eremu zabalagoko kirol federazioen estatutuak eta araudiak Federazio honi eta bere kideei aplika dakizkieke soilik baldin Arabako Federazio hau haietako kide bada, eta federazio horiek eskumena duten gaien inguruan baino ez. Kasu horietan, Arabako Txirrindularitza Federazioak arau horiek behar adina zabaldu beharko ditu, Federazioaren estamentu desberdinek behar bezala ezagut ditzaten. Arau horiek Federazio honen hizkuntza ofizialetakoren batean idatzita egon behar dute.

2.- Lurralde eremu zabalagoko kirol federazioen gainerako araudiak ez zaizkio zuzenean aplikatuko Arabako Txirrindularitza Federazioari eta horren kideei. Federazioaren araudian sartu ahal izateko, federazioaren eta administrazioaren onarpena eta Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroko inskripzioa beharko dira.

3.- Autonomia Erkidegoena baino lurralde eremu zabalagoko kirol federazioen araudiak ez dira era osagarrian aplikatzekoak izango Arabako Txirrindularitza Federazioan. Hala ere, arau horiek era osagarrian aplikatu ahal izango ditu, baldin eta bere araudietan berariaz hala ezartzen bada, behar bezala ezagutarazten badira eta Federazio honen hizkuntza ofizialetakoren batean idatzita badaude.

**XI. TITULUA**
**HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA**

95. artikulua

Euskara eta gaztelania dira Arabako Txirrindularitza Federazioaren hizkuntza ofizialak.

96. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren organoek Federazioaren baitan euskara normalizatzeko pixkanakako prozesua bermatuko dute, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren Hirugarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoaren arabera.

97. artikulua

Arabako Txirrindularitza Federazioaren ziurtapenak Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan edo horietako batean egin ahal izango dira, interesdunak adierazten duen moduan.

**XII. TITULUA**
**GATAZKAK EPAITEGIETATIK KANPORA EBAZTEA**

98. artikulua

Federazioaren eta federatu edo kideen artean nahiz horien artean sor daitezkeen auziak edo diferentziak Zuzenbide Arbitrajearen bidez ebatziko dira, indarrean dagoen legedian, Estatutu hauetan eta garapen araudian ezarritako terminoetan.

99. artikulua

Arbitraje bidez ebatzi daitezkeen auzi edo diferentziak edo, oro har, epaitegietatik kanpora ebatzi daitezkeen gatazkak, Euskal Kirol Federazioen Batasunak sortutako Kirol Arbitrajerako Euskal Auzitegiaren pean jarriko dira.

100. artikulua

Bide horretatik ebatziko dira gai guztiak, hauek izan ezik: Administrazioak Federazioari eskuordetutako funtzio publikoen gauzatzearekin zerikusia dutenak eta legediak berariaz eta legez arbitrajetik kanpo uzten dituenak.

101. artikulua

Ulertzen da Estatutu hauetan eta horien garapenerako araudian aurreikusitako arbitraje sistemaren eta gatazkak epaitegietatik kanpora ebazteko sistemaren pean jartzen dela federatu edo Federazioko kide oro, nola-eta Estatutu hauek onesten diren datatik edo lizentzia eskuratzen duenetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean berariaz horiei uko egiten ez dien.

Artículo 93

1.- Las circulares federativas servirán para notificar e informar sobre la vigencia, aplicación o interpretación de estatutos y reglamentos, o sobre otras cuestiones federativas, pero no tendrán naturaleza normativa.

2.- Las circulares federativas no precisarán de aprobación administrativa previa.

Artículo 94

1.- Los estatutos y reglamentos de las federaciones deportivas de ámbito territorial superior sólo serán directamente aplicables a la Federación y a sus miembros si esta Federación Alavesa se halla integrada en aquellas federaciones y respecto a las materias que son competencia de las mismas. En tal caso, la Federación Alavesa de Ciclismo deberá divulgar dichas normas para un efectivo conocimiento por los distintos estamentos de la Federación. Tales normas deberán estar escritas en alguna de las lenguas oficiales de esta Federación.

2.- Las demás normas de las federaciones deportivas de ámbito territorial superior no serán directamente aplicables a la Federación Alavesa de Ciclismo y a sus miembros. Sólo se incorporarán a la normativa propia de la Federación cuando se produzca su aprobación federativa y administrativa así como su inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

3.- Los reglamentos de las federaciones deportivas supraautonómicas no resultarán de aplicación supletoria en la Federación Alavesa de Ciclismo. No obstante, podrá aplicar supletoriamente dichas normas siempre que exista una remisión expresa en sus reglamentos, tales normas estén difundidas suficientemente y se hallen escritas en alguna de las lenguas oficiales de esta Federación.

**TÍTULO XI**
**NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA**

Artículo 95

El euskera y el castellano constituyen lenguas oficiales de la Federación Alavesa de Ciclismo.

Artículo 96

Los órganos de la Federación Alavesa de Ciclismo garantizarán un proceso gradual de normalización lingüística en el seno de la Federación conforme a lo dispuesto en la Disposición Transitoria Tercera del Decreto 16/2006, de 31 de enero.

Artículo 97

Las certificaciones de la Federación Alavesa de Ciclismo podrán emitirse en bilingüe o en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma en función de lo manifestado por la persona interesada.

**TÍTULO XII**
**RESOLUCIÓN EXTRAJUDICIAL DE CONFLICTOS**

Artículo 98

Las diferencias o cuestiones litigiosas que puedan plantearse entre la Federación y sus federados o miembros o entres éstos serán resueltas por medio de Arbitraje en Derecho, en los términos establecidos en la legislación vigente, en los presentes Estatutos y en el Reglamento de desarrollo.

Artículo 99

Las diferencias o cuestiones litigiosas susceptibles de ser resueltas mediante arbitraje o, en general, resolución extrajudicial de conflictos, serán sometidas al Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo creado por la Unión de Federaciones Deportivas Vascas.

Artículo 100

Salvo las cuestiones relacionadas con el ejercicio de funciones públicas delegadas por la Administración a la Federación y las materias legal y expresamente excluidas de arbitraje por la legislación, las demás serán resueltas por esta vía.

Artículo 101

Todo federado o miembro de la Federación que, en el plazo de un mes, a contar desde la fecha de aprobación de los presentes Estatutos o desde la fecha en que obtenga licencia no renunciare expresamente se supone queda sometido al sistema de arbitraje y resolución extrajudicial de conflictos previsto en los presentes Estatutos y en el Reglamento de desarrollo.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzak urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 25. artikuluan aurreikusitako lizentzien ezaugarri teknikoak onesten ez dituen bitartean, lizentziak Euskadiko dagokion Federazioak onartutako formatuan izapidetzen jarraitu ahal izango du Federazioak.

Bigarrena.- Estatutu hauetako 36. artikuluan ezarritako agintaldi mugek ez dute eraginik izango estatutu hauek indarrean sartzean lehendik dauden karguetan, eta, ondorioz, kargu horiek beren egungo agintaldiak amaitu ahal izango dituzte. Estatutuetako aipatutako mugak hurrengo hauteskunde prozesuetarako bakarrik izango dira kargu horiei aplikatzekoak.

Hirugarrena.- Estatutu hauek indarrean sartu eta gero, Federazioaren organoak berritzeko hauteskunderik ez da egingo Olinpiaden urtera arte, hau da, 2008 arte; bitartean, organoetako pertsonak eta osaera aurreko estatutuen araberakoak izango dira, jarraian bi hauteskunde prozesu egin beharra saihesteko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira Arabako Txirrindularitza Federazioaren estatutuak, estatutu hauek inskribatu eta argitaratu arte indarrean egon direnak.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren hurrengoan sartuko dira indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko azaroaren 21a.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.- Hasta que el Gobierno Vasco no apruebe las especificaciones técnicas de las licencias, previstas en el artículo 25 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, la Federación podrá seguir emitiendo las licencias con el formato acordado por la respectiva Federación Vasca.

Segunda.- Las limitación de mandatos establecida en el artículo 36 de los presentes estatutos no afectarán a los cargos existentes a la entrada en vigor de estos estatutos y dichos cargos podrán, en consecuencia, finalizar sus actuales mandatos. A tales cargos sólo les resultará de aplicación las citadas limitaciones estatutarias para próximos procesos electorales.

Tercera.- Una vez que entren en vigor los presentes Estatutos, no se celebrarán elecciones para la renovación de los órganos federativos hasta el año 2008, año olímpico, continuando las personas y la composición de los órganos de conformidad con los estatutos anteriores, a fin de evitar dos procesos electorales consecutivos.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados los estatutos de la Federación Alavesa de Ciclismo que han estado vigentes hasta la fecha en que éstos sean inscritos y publicados.

DISPOSICIÓN FINAL

Los presentes estatutos entrarán en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 21 noviembre de 2007.

## Iragarkiak

### HERRILAN ETA GARRAIO SAILA

GARRAIO ZERBITZUA

*Arabako Arbitraje Batzordea*

**5791**

**3/2008-183 disputaren ahozko ikustaldiari buruzko jakinarazpena.**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak 59.5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Erauza SL enpresari —Ortuoste, 3 nabea 13-1. C. Gasteiz (Araba)— ahozko ikustaldira joateko jakinarazpena egiten saiatu arren lortu ez denez gero, iragarki honen bidez egiten zaio.

Arabako Arbitraje Batzorde honetan T.B. Vitoria, SL enpresaren erreklamazio bat jaso da zure enpresaren aurka.

Erreklamazio horri buruzko AHOZKO IKUSTALDIA 2008ko urriaren 7an 09:45ean izango da Arbitraje Batzar honen egoitzan (Arabako Foru Aldundiaren Jauregiaren beheko solairua. Probintzia plaza, zk.g. Vitoria-Gasteiz). Bertan, egoki deritzezun alegazioak eta probak aurkeztu ahal izango dituzu.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 1a.– Garraio Zerbitzuaren burua eta Arbitraje Batzarreko lehendakaria, ANA MARÍA ARRIETA NAVARIDAS.

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

SERVICIO DE TRANSPORTES

*Junta Arbitral del Transporte de Álava*

**5791**

**Notificación para informar de la Vista Oral de la controversia 3/2008-183.**

De conformidad con lo dispuesto en el art. 59.5 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, intentada la notificación para asistir a la Vista Oral a Industrias Erauza, S.L., C/Ortuoste, 3 nave 13-1º C de Vitoria (Álava), sin que se haya podido practicar, se realiza la notificación mediante este anuncio.

“Se ha recibido en esta Junta Arbitral del Transporte de Alava, reclamación de Tb Vitoria, S.L., contra esa razón social.

La vista oral relativa a dicha reclamación, tendrá lugar el día 7 de octubre de 2008, a las 9:45 horas, en el domicilio de esta Junta Arbitral sito en la planta baja de la Casa-Palacio de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia s/n de Vitoria-Gasteiz, y en ella podrá alegar lo que a su derecho convenga y aportar o proponer las pruebas que estime pertinentes.”

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de septiembre de 2008.– Jefa del Servicio de Transportes y Presidenta de la Junta Arbitral, ANA MARÍA ARRIETA NAVARIDAS.

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

*Derrigorrezko Dirubilketa Agentzia*

**5778**

**Egin gabeko jakinarazpenak**

Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 108. artikuluan xedatutakoaren indarrez, administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jakinarazpena ezin egin daitekeenez, eta gutxienez aipatutako artikuluan agindutako jakinarazpen ahaleginak egin direlarik, iragarki honen bidez zitazioa egiten zaie

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

*Agencia Ejecutiva*

**5778**

**Notificaciones pendientes**

En virtud de lo dispuesto en el artículo 108 de la Norma Foral General Tributaria de Álava (Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero), no siendo posible practicar la notificación por causas no imputables a la Administración y habiéndose realizado, al menos, los intentos de notificación exigidos por el citado artículo, por el presente anuncio se